

# AZPEITIKO GAZTEAK ETA EUSKARA

Maddi Aranguren Zubimendi  
Hiznet, sakontze-egitasmoa (2011-2012)

# Edukien aurkibidea

1. Sarrera
2. Hurbilpen teorikoa
  - 2.1. Euskalkiak
  - 2.2. Erdialdeko euskalkia
  - 2.3. Sartaldeko azpieuskalkia eta Urolaldekoa
  - 2.4. Azpeitiko euskararen egoera
  - 2.5. Gazte-hizkera
  - 2.6. Azpeitiko gazteen hizkera
  - 2.7. Kode-alternantzia
  - 2.8. Textspeak edo idazkera kolokiala
3. Lanaren helburua eta metodologia
  - 3.1. Aztergaia eta abiapuntuko hipotesia
  - 3.2. Metodologia
  - 3.3. Lagina
    - 3.3.1 Hitzunen fitxak
4. Inkesten emaitzak
  - 4.1. Herriko euskara: kalitatea eta kantitatea
  - 4.2. Gazteen hizkera
  - 4.3. Denek berdin egiten dute?
    - 4.3.1. Zahar eta gazteak
    - 4.3.2. Ikastetxeak
    - 4.3.3. Auzoak
  - 4.4. Batua ala euskalkia?
  - 4.5. Hitanoa
  - 4.6. Kultura-kontsumoa
  - 4.7. Gaztelania
5. Ahozkoaren eta lagunarteko hizkeraren azterketa
  - 5.1. Transkribatzeko irizpideak
  - 5.2. Azterketa xehatua
6. Ondorioak
7. Bibliografia
8. Eranskinak

# 1. SARRERA

*Azpeitiye*, Azpeitia, herri euskalduna da, ezbairik gabe. Baina, nola, noiz, zenbat, norekin hitz egiten dute euskaraz Azpeitiko gazteek? Gazte guztiek berdin egiten ote dute? Ari ote da aldatzen azpeitiar gazteen hizkera? Zer bilakaera izaten ari da? Zer iritzi ote dute azpeitiar gazteek beren eta beren herrikideen hizkerari buruz?

“Azpeitiko gazteak eta euskara” da lan honen azterketa-eremua: Azpeitiko gazteen euskara nolakoa den, zer harreman duten hizkuntzarekin... Lanaren bidez, aztertu nahi izan dut Azpeitiko gazteek nola, noiz, norekin egiten duten euskaraz. Lehen ere aztertu izan dira Azpeitiko hizkeraren zenbait alderdi, bai eta Azpeitiko gazteen hizkerarenak ere. Lan honekin, Azpeitiko 20 gazteren hizketa-jarduna, lagunarteko idazkera eta iritziak kontuan hartuta, lehen egindako lanak neurri batean osatu eta eguneratu egin nahi nituzke.

## 2. HURBILPEN TEORIKOA

### **2.1. Euskalkiak** (ahotsak.com-etik hartua eta moldatua)

Euskararen dialektoak, tokian tokiko hizkerak, dira euskalkiak. Historian zehar, hainbat sailkapen egin izan dira, eta ez ditugu hemen guztiak aipatuko. Koldo Zuazok lan handia egin du alor honetan, eta, gaur egun haren sailkapena da erreferente nagusia; huraxe hartu dut aintzat lan honetarako. Haren arabera, bost dira euskalkiak, eta, halaber, azpieuskalki zenbait ikusten ditu bakoitzaren barruan:

- Zuberotarra
  
- Mendebaldekoa
  - Sartaldekoa
  - Sortaldekoa
  
- Erdialdekoa
  - Sartaldekoa
  - Erdigunekoa
  - Sortaldekoa
  
- Nafarra
  - Ipar-sartaldekoa
  - Hego-sartaldekoa
  - Erdigunekoa
  - Sortaldekoa
  - Burundakoa
  - Baztangoa
  - Aezkoakoa
  
- Nafar-lapurterra
  - Sartaldekoa
  - Sortaldekoa
  - Kostatarra
  - Amikuzekoa

“Bizkaiera” eta “gipuzkera” deitu izan direnak izendatu ditu Zuazok “mendebaldeko” eta “erdialdeko” euskalki, hurrenez hurren. Euskalkien sailkapen horretan, Azpeitiko hizkera, guri dagokiguna, erdialdeko euskalkian kokatzen du.

## 2.2. Erdialdeko euskalkia

Erdialdeko euskalkia garrantzitsua izan da euskararen ibilbidean, euskalki horretan oinarritu delako, nagusiki, euskara batua. Beterriko euskara du ardatz, baina, dena dela, Gipuzkoan hizkera asko daude, lurraldearen beraren egitura dela eta. Gipuzkoan ez baita egon hirigune bakar garrantzitsu bat, asko baizik, eta haien inguruan egituratu dira bai eskualdeak, bai hizkerak. Dena dela, Beterriko euskara (Tolosakoa esan izan da sarri) garbitasun- eta edertasun-eredu izan da gainerako hizkeretako hiztunentzat, bai Gipuzkoan, bai eta beste lurraldeetan ere.

Gainera, Nafarroa aldera ere zabaldu da gipuzkera (Basaburua, Imotz, Larraun eta Araitz-Betelu ibarrak eta Azpirotz mendatearen mendebaldera dauden Larraungo herrietan, esaterako, Tolosarekin harreman estua izan dutelako). Erdialdeko euskaran, hiru eremu nagusi bereizten ditu Zuazok: erdigunekoa (Beterri), sortaldekoa (Nafarroako Basaburua, Imotz, Larraun eta Araitz-Betelu eta Gipuzkoako Bidasoaldea) eta sartaldekoa (Goierri eta Urolaldea). Sartaldeko azpieuskalkian sartzen du, beraz, Azpeitiko hizkera.

Erdialdeko hizkerak ezaugarri hauek ditu:

### Fonetika

1. \*j-ren ahoskera beti da <j> tankerakoa (eta ez Mendebal gehieneko <y>): *jan, jakin...* (eta ez *yan, yakin...*)
2. Erdarazko -(c)ión → -(z)io (*ziyo*) egin da.
3. Hitz hasieran z- > tx-: *txoro, txuri, txilbor, txintxo...*

### Morfologia

Izenaren morfologia

1. Gipuzkoan barrena *-raka (>-aka)* atzizkia erabiltzen da norabidea adierazteko, beste alderdi batzuetako *-rantz / -rutz* edo *-ri buruz* bezala: *honeaka, horreaka, kanpoaka...* Ez da edozein hitzekin erabiltzen eta gazteen jardunean indar handiagoa du adinekoenean baino.
2. Aditz-izenak osatzeko *-tzen / -ten* besterik ez: *pentsatzen, ikusten...*

Aditzaren morfologia

1. \**edun* aditzaren orainaldiko adizkietan *-e-* erroa : *det, degu, dezu...*
2. Izan aditzaren pluraleko adizkietan *-e-* erroa: *gera, zera, zerate...*
3. *Joan* aditzaren *nijoa, dijoa, dijoaz* tankerako adizkiak.
4. *Nor-Nork* saileko aditz laguntzailean *-au-* → *-a-* egiten da hizkera askotan: *nauk/naun* → *nak/nan* ; *nauzu* → *nazu...*
5. *Nor-Nori* saileko aditz laguntzailean *-ai-* → *-a-* egiten da: *zait* → *zat, zaigu* → *zau...*
6. *-zki-* pluralgilea erabiltzen da \**edun*-en hitanoko adizkietan, ez *-it-* orokorra: *ditut* → *dizkiat/dizkinat, ditu* → *dizkik/dizkin...* Beterritik Urolalde gehienera eta Goierriera ere zabaldu da joera hau.

## Sintaxia

1. Galderetan, intonazioaz gainera, oso indartsua da *al* partikula erabiltzeko joera: *etorriko al haiz?*

## **2.3. Sartaldeko azpieuskalkia eta Urolaldeko hizkera**

Urolaldekoak eta Goierriko hizkerak osatzen dute Sartaldeko azpieuskalkia, baina bi hizkerak desberdinak dira. Urolaldekoan, sakonagoa da mendebaldeko euskararen eragina. Eremu lauagoa delako eta, batez ere, Eibar-Elgoibar aldeko industriak eraginda, estuagoa eta sarriagoa izan da hartu-eman. Lexikoan azaltzen da argien lotura, baina lexikoan ez ezik, hizkuntzaren beste sail batzuetan ere ageri da mendebaldeko euskararen eragina Urolaldean.

Mendebaldearekiko lotura gisa, aditzeko ezaugarri bat aipa liteke: Azpeitian “esan debe”, “gustatze(n) zakobe” erabiltzen da, eta ez “dute”, “zaie”.

Sartaldeko azpieuskalkiak ezaugarri hauek ditu:

### Fonetika

- -a bokalez amaitzen diren hitzak artikuluarekin batzean, -a + a → -ea (> -ia, -ie) egitea: *patata + a → patatea / patatia / patatie*

### Morfologia

-rik atzizkia *etxerik etxe tankerako esapideetan*.

- \*egin erroa erabiltzen da ahaleran: *daiket* 'dezaket'
- Gaztelaniatik mailegatutako partizipioetan -ado> -au gertatu da eta, gainera, mendebaldeko euskalkian baino indar handiagoa dauka. Euskalki horretan ez bezala, mailegu zaharretan eta euskal aditzetan ere erabiltzen da: *aukerau, barkau, ingurau...*
- *Irten* aditza iragankorra zein iragangaitza izan daiteke: *erten degu*. Urolaldean jardun erabiltzen da eta hori ere iragankorra da: *jardun degu*.

### Sintaxia

Perpaus osagarrietako -(e)na atzizkia: *nik antzeman nion hilko zana. Ezaugarri hau ahulduz doala dirudi eta gazteen artean gero eta gutxiago erabiltzen da.*

- Galdera-perpausetako *ala* juntagailua: *gaztiñea ugarie izango zan, ala?*
- Partizipioa + ta nagusitzen da. Baina Goierriin -rik eta -a ere erabiltzen dira.
- Esaldi kontzesiboetan -arren ere bada aukeran Gipuzkoako ipar-mendebaldean (gaur egun atzeraka doa): *asko saxau arren, atzena allau zan.*

## Urolaldeko hizkera

### Morfologia

Neuk egiturako izenordain indartuak erabiltzen dira; hala ere, *neronek* sailekoak ere badira Urolaldeko ekialdean.

- *-iu* dago partizipioetan, batez ere Azkoitia-Azpeitia aldean eta, mendebaldean ez bezala, euskal aditzetan ere agertzen da: *garbiu, geldiu, txikiu...*
- NOR-NORK sailean, NOR-NORI-NORK saileko iraganaldian eta trinkoetan hitanoko adizkietako *-txi-* osagaia ageri da, Beterrin moduan: *nau* → *natxiok / natxion, nion* → *nitxuan / nitxionan, nago* → *natxiok / natxion...*

### Sintaxia

Kausa eta helburu perpausetako *-tearren* atzizkia dago hizkera batzuetan: *jendiak ez ikustiarren, gauetz ibiltze(n) zan*.

Horiek Urolaldeko hizkeren ezaugarriak dira, ordea. Azpeitiko hizkeraren beraren ezaugarri bat aipatzekotan, nabarmenena izango da, seguru asko, i eta beste bokal bat daudenean y hotsa sartzen dela tartean. *Mendiye* da, beraz, Azpeitian; *mendixe* Azkoitian, eta *mendiya* Zestoan. Baina beste hainbat ere badira desberdintasunak. Izan ere, bertatik bertara egon arren eta tartean oztopo geografiko garrantzitsurik izan ez arren, alde handia dago herri bateko hizkeratik bestekora. Intonazioa, lexikoa... Koldo Zuazorena da ondorengo hau ere:

*“Oso aintzakotzat hartzekoa da Humboldttek esandakoa: urruneko herrien artean gertukoetan ez diren kideatasunak azaltzen direla. Ezagunak ditugu zenbait adibide. Bata bestearen ondoan daude Azkoitia eta Azpeitia, eta oso hartu-eman estua izan da bien artean. Bateko eta besteko hizkerak, ostera, nabarmen desberdinak dira, eta hori ez da halabeharraren ondorioa: garbi dago hiztunek nahita zabaldu dutela aldea, batzuk eta besteak argiro bereiztearren.” (Zuazo 2005, Euskara batua, ezina ekinez egina).*

Desberdintasun horietako batzuk azaldu zituen Patxi Goenagak Azpeitian emandako hitzaldi batean:

*“Fonetika aldetik, Azpeitian mendiye eta ogiye esaten da, eta Azkoitian, berriz, mendixe eta ogixe esaten da. Baina, aita, bi herrietan aitte esaten bada ere, beste hitz batzuetan azpeitiarrek t erabiltzen dute, hau da: kito, ditugu, Azkoitiyen, Azpeitiyen... Aldameneko herrian, aldiz, tt erabiltzen dute: kitto, dittugu, Azkoittixen, Azpeittixen... Doinu aldetik bi herrietako hizkeren artean dauden desberdintasunak ere azaldu zituen, Azpeitian indarra non jartzen den hitz hauek esaterakoan: \*sardiñe zarrak (Azkoitian: sárdiñe zarrak); tripékiyek (Azk.: tripekixek); antxóak (Azk.: ántxoak); ikíxtea (Azk.: íkixtea). Hiztegi aldetik ere badira desberdintasunak: Azpeitian karrerie dena, Azkoitian bebarrue da; laisterka edo laistreka, antxintxike; itzeldu, emendau; ude, ure; zibota edo xibota, erremotie; gosaiye, amortzue\*...” (uztarria.com)*

Azpeitiko hizkeraren beste zenbait ezaugarri ere jaso ditu Zuazok han eta hemen, bere liburuetan:

*“u eta i bokalen ondoren, a-> e egiten da hizkera askotan. (...) Gipuzkoari dagokionez, berriz, Goierrin eta Tolosaren hegoaldean betetzen da, eta baita -indartsu, gainera- Azkoitian eta Azpeitian ere”.*

*“Badira, hirugarrenik, bustidura indartsua duten hizkerak. Aldeak alde, mendebal gehiena, erdialdea eta euskara nafarraren mendebala daude bertan. (...)*

*Gipuzkoan, esate baterako, badira t bustitzen ez duten zenbait herri: Zarautz, Orío, Igeldo, Donostia, Pasaia, Zegama eta Azpeitia daude, behinik behin, multzo horretan”. (Zuazo, Euskalkiak, euskararen dialektoak)*

*“Berrikuntza dirudi Euskal Herriko erdiguneko -zki- pluralgileak. (...)*

*Zuberoan, Amiküzen eta Aturrialdeko hizkera batzuetan -(t)z- da pluralgilea (...)*

*Harritzekoa badirudi ere, pluralgile berbera aurkitzen dugu -baina i-ren eraginez, tz->tx aldatuta inoiz- non eta Azkoitian eta Azpeitian: zaitxit, zaitxik/zaitxin, zaizko, zaizku, zaitzu, zaitzue, zaizkoe, esate baterako, Azkoitian (Irizar 1991-1)”. (Zuazo, Euskalkiak, herriaren lekukoak)*



## **2.4. Azpeitiko euskararen egoera** (uztarria.com-etik hartua eta moldatua)


2011n, Azpeitiak 14.351 biztanle zituen. Horietatik % 85 baino gehiago hirigunean, eta, gainerakoak, zazpi auzotan banatuta: Izarraitz, Aratz-erreka, Eizagirre, Elosiaga, Loiola, Odria, Oñatz, Urrestilla eta Nuarben. Azpeitiko populazioa poliki-poliki haziz joan da azken hamarkadan: 1975. urtean, 12.209 biztanle zituen; 1981ean, 13.196; 2004an, 13.893; eta, 2011n, 14.351.

Azpeitiak 69,4 kilometro karratu ditu, eta, hedaduraz, Gipuzkoako udalerririk handienetako bat da. Azkoitia, Deba, Zestoa, Errezil, Bidania, Beasain, Ezkio-Itsaso eta Zumarragarekin egiten du muga.

2006ko datuen arabera (Eustat), Azpeitian 13,814 biztanle zeuden. Horietatik 11.376 ziren euskaldunak, 1.228 ia euskaldunak, eta 783 erdaldunak.

Erabilerari dagokionez, Azpeitian, kale-neurketen arabera, euskararen erabilerak bilakaera hau izan du: 1993an, % 78,2koa zen erabilera. 2001ean, % 80,6koa. 2006an, % 84,6koa, eta, azkenik, 2009an, % 86koa. Erabilera-maila handia da, eta, gainera, goranzko joera du.

*Azpeitiko euskararen ezagutzaren datuak. Eustat, 2006*



## **2.5. Gazte-hizkera**

Gazteek erabiltzen duten hizkera da gazte-hizkera, eta helduen hizkeratik bereizten duten zenbait ezaugarri izan ohi ditu.

Gazte-hizkera boterearen hizkuntzaren kontrako hizkera gisa sortu ohi da mundu osoan, bai gazte-mugimenduetan, bai inguru marginaletan, drogak direla eta, kartzelan... Eta, euskarazko gazte-hizkeran, zeren aurka egin nahi izaten den? Bada, oro har, hizkuntza arautuaren aurka, erabilera formaletako eta irakaskuntzako erabileraren aurka (euskara batua), familiako (gurasoen) erabileraren aurka (etxeko euskalkia)...

Aurkakotasun-jarrera horri eusteko, batzuek euskara alde batera uzten dute, eta erdaraz hitz egiten dute. Beste batzuek, berriz, euskara batutik edo etxeko euskaratik aldentzen den beste hizkera bat egin (edo asmatu) nahi izaten dute.

Baina ez da hori euskararen kasuan gazte-hizkerak sortzeko arrazoi bakarra, ez eta nagusia ere. Gurean, egoera soziolinguistiko berezia dugu: euskara hizkuntza oso handiekin ukipenean dago, eta, bestalde, euskalkia vs. batua daukagu. Kike Amonarrizen arabera, ezaugarri hauek ditu euskarazko gazte-hizkera kolokialak:

- Euskara nahasia da:
  - Euskara eta erdara(k) nahasten dituzte. Nahasketa-moduak eta neurriak asko aldatzen dira leku batetik bestera eta pertsona edo egoera desberdinen artean. Erdararen eragina orokorra eta sakona da. Euskarazko hitzak edo esamoldeak ezagutu arren, adierazkortasuna lortu nahi dutenean, erdaretara jo ohi dute.
  - Euskarazko zatietan, batua eta euskalkia(k) nahasten dituzte. Eta euskalkirik hitz egiten ez den inguruetan, norberak gertuen sentitzen duen edo gehien ezagutzen duen euskalkiaz baliatzeko joera ari da zabalitzen.
  - Herri bakoitzean, kontsentsuzko forma linguistiko berriak sortzen dituzte, edo usadiozko batzuei bestelako erabilera eman.
  - Euskara zuzena eta euskara akastuna. Akatsak oso modu naturalean onartzen dira idazkera berri honetan.
  - Norberarena ez diren beste euskalkiak ere tarteka erabil daitezke. Joera honen hastapenak sumatu ditugu.
  - E-mailtzan osagai bakoitzak hartzen duen proportzioa hitzun gazte(ar)en ingurune soziolinguistikoak markatzen du.
- Ipar eta Hegoaren arteko leizea gero eta sakonagoa da. Ibon Sarasolak esan izan du etorkizunean euskarak bi euskalki izango dituela: iparraldekoa eta hegoaldekoa. Joera honen inguruko argibideak eskaini ditu Koldo Zuazok bere azken liburuan.
- Euskalkiak adierazkortasuna lorzteko bide bezala erabiltzen dira, baina modu partzialean, ez bere osotasunean. Hizkera tradizionala maiz arbuaiatu egiten da.
- Euskarazko argot berriren baten aztarnak guztiz anekdotikoak dira.

## 2.6. Azpeitiko gazteen hizkera

Azaldu dut dagoeneko Azpeitia herri euskalduna dela, bai eta gazte-hizkera zer den ere. Eta, Azpeitian, ba al da gazte-hizkera berezirik? Egiten al dute Azpeitiko gazteek aldaketa bereziren bat helduengandik bereizteko, edo beren talde-izaera indartzeko, edo beste arrazoiren batengatik? Azpeitiko gazteen eta euskararen/hizkeraren arteko lotura aztertu duten lan batzuk egin dira, edo, bereziki horretarako egin ez arren, horri buruzko datuak ematen dizkigute. Bi azterketa aipatu nahi nituzke.

Lehena, 2001ean, Josu Goenagak eta Eider Alkortak egindako lana: "Azpeitiko gazteen jarrera euskararen inguruan", Azpeitiko Udaleko Euskara Patronatuaren Iturri-zahar bekarekin egina. Haien lanaren ondorio nagusiak hauek dira:

- Azpeitiko gazteen euskararen ezagutza-maila handia da, etxeko giroaren zein eskolaren ondorioz. Gehienek gurasoak euskaldunak dira, eta gainera, ikasketak euskaraz egin dituzte (multzo horretan ez dira sartzen ikasketak A eremuan egin dituztenak, baina gutxi dira Azpeitian).
- Azpeitian, oro har, euskararen erabilera-maila handia bada, are handiagoa da gazteena. Etxeko erabilera kalekoa baino zertxobait txikiagoa da; horrek esan nahi du etxean erdaraz egiten duten gazte batzuek kalean euskara erabiltzen dutela.
- Lagunartean, guraso, irakasle eta abarren gainbegiratzetik gabe daudenean, gazteek elebakartasunerako joera dute: euskaraz bakarrik (% 82) edo gaztelaniaz bakarrik (% 2,3) egiten dute.
- Euskararekiko jarrera positiboa dute; hizkuntza bultzatu eta defenditu egin behar dela uste dute; baita erdararekin gertutasun handiena dutenek ere.
- Komunikabideei dagokienez, telebista gehienbat erdaraz ikusten dute. Irakurtzeko ohitura handirik ez dute, eta, egiten dutenean, egunkariak euskaraz, baina aldizkariak erdaraz irakurtzen dituzte. Liburuak ere gutxi irakurtzen dituzte, baina, oro har, erdaraz gehiago euskaraz baino. Irratia euskaraz entzuten dute, baina irratia entzuten baino denbora gehiago ematen dute telebista ikusten. Hala ere, horren guztiaren eragina ez da handia erabileran, euskaraz egiten baitute nagusiki.
- GENEROA. Ezagutza-maila bera izan arren, badirudi neskek gehiago erabiltzen dutela euskara, eta hizkuntzarekiko ardura handiagoa dutela. Generoaren arabera, zenbait aldaketa (filologikoak) antzeman dira; hala nola mutilek neskek baino hizkera gogorragoa darabiltela. Elkarriketetan adierazitakoaren arabera, badirudi azpeitiar emakume helduek erdarara jotzeko ohitura handiagoa dutela.
- IKASTETXEA. Elkarriketa nahiz behaketaren arabera, Ikasberri Ikastola (% 100) da ikastetxe euskaldunena, eta Iraurgi (% 70,75) erdaldunena.
- GURASOEN JATORRIA EDO AMA-HIZKUNTZA. Gazteengan eragin handiena duen aldagaia da. Gurasoen jaioterriaren arabera, hiru talde daude:
  1. Euskal Herrian jaiotako gurasoak dituztenak. Hauentzat garrantzi handiagoa du euskarak; ardura handiagoa dute.
  2. Gurasoak Euskal Herritik kanpo jaiotakoak dituztenak. Hauek dute euskararekiko ardura txikiena. Gutxi uste dute euskaldun izateko baldintza

nagusia euskara dela. Gehienek uste dute Euskal Herriak erdalduna baino euskaldunagoa izan behar lukeela, baina elebitasun orekatuaren aldeko iritzia ere asko agertu da.

3. Guraso bat Euskal Herrian eta bestea kanpoan jaioa dutenak. Aurreko bi taldeen artean daude, baina gertutasun handiagoa dute erdaldun jatorriko gurasoak dituztenekin euskaldun jatorrikoak dituztenekin baino. Erabileraren eta jarreraren inguruko esparru guztietan, bi taldeen arteko zubia da talde hau.
- BIZITOKIA. Erabilera handiena Paulo VI auzoan neurtu da, eta txikiena Landetan. Dena dela, Landetan euskararen erabilera txikiena neurtu arren, Sanjuandegin neurtu da gaztelaniaren erabilera-maila handiena. Sanjuandegin soilik neurtu dira gaztelania hutseko hizketaldiak. Elkarrizketatuen ustez ere Sanjuandegi da Azpeitiko auzo erdaldunena, nahiz eta denborarekin euskalduntzen ari dela dioten iritziak ere izan. Badirudi arintzen ari dela garai batean auzo horrek zuen erdaldun *guetto* itxura. Dena dela, oro har erdaldunagoa izan arren, Sanjuandegiko gazteek euskara besteen maila berean ezagutzen eta erabiltzen dute. Haien erdararen erabilera handiena etxean izaten da, baina, kalean, beste auzoetako gazteen antzera erabiltzen dute euskara.

Aipatzea merezi duen beste ikerketa-lan bat da Maitane Izagirrek 2011n Hiznet graduondokorako egindakoa (Hitanoaren erabilera Azpeitian). Lan horretan, Azpeitiko hiketaren erabilera deskribatu zuen, belaunaldien arteko alderaketa eginez: herriko ikastetxeetako ikasleen eta haien gurasoen artekoa. Hitanoa tradizioz hizkera kolokialerako erabili izan denez (eta, gazteen artean eta lagunartean, bereziki) eta Azpeitia hitanoa erabiltzen duen herri oso euskaldun bat denez, pentsatzekoa da azpeitiar gazteentzat tresna egokia dela lagunarteko hizkeran erabiltzeko. Lan honetarako erabilgarria izan liteke, beraz. Hitanoari buruzko lanean, zehatz aztertzen da nork eta norekin erabiltzen duen hitanoa Azpeitian. Haren lanaren ondorioetako batzuk ere aipatu nahi nituzke:

- Azpeitiko gazteen artean, toka bizi-bizi dago; noka, berriz, hilzorian, hilda ez esatearren. Mutilek erruz egiten dute hika, baina neskekin gutxi. Neskek, berriz, gutxi egiten dute, eta egiten duten apur horretatik gehiena mutilekin egiten dute. Neskei gutxi egiten zaie hika, eta, entzun ezear, ezin ikasi, eta are gutxiago erabili.
- Gurasoen transmisioan galera handia egon da. Aitek semeei hika egiten diete; ez ordea alabei. Amek, berriz, ez batzuei eta ez besteei.
- Anaia-arreben arteko harremanean ere noka egiteko ohitura galdu da. Toka egiten jarraitzen da, ordea, lehen baino gutxiago egin arren.
- Lehengusuen artean, toka egiten jarraitzen da, behera egin arren. Noka ez da egiten, ia desagertu egin da.
- Koadrillan, mutilek mutilekin hika egiten dute. Neska-mutilen artean asko jaitsi da, eta ia galdu egin da. Nesken artean, zuka baino ez da egiten.
- Ezagunekin, neskek zuka egiten dute. Mutilek, berriz, mutilekin hika, eta, neskekin hika egiten duten apurrek, toka egiten dute.

- Hika egiteko arrazoen artean, ohitura, gertutasuna eta erosotasuna aipatu dituzte heldu nahiz mutil gazteek. Azpeitiarra izatea eta hika egitea lotu dituzte guztiek. Zuka errespetua zor zaienekin egiten dutela aitortu dute. Neskek, berriz, ez dute egiten, ez dakitelako, inork egiten ez dielako eta ikasi ez dutelako.
- Neska gazteek salbu, hika beren-berena sentitzen dute azpeitiarrek, azpeitiarra izatearekin lotuta doan zerbait. Neskak dira, halaber, hiketaren gainean iritzirik txarrenak dituztenak.
- Hiketaren syntaxizko debekuei dagokionez, helduek arauak errespetatu, eta menpekoetan ez dute alokutiborik erabiltzen. Gazteen artean, berriz, menpekoetan alokutiboa erabiltzea da arruntena. Horren ondorioz, esaldia hika taxutzeko lanak izaten dituzte gazteek, eta aditz zail eta xeble mordo asmatzen dute.

Bi lanak dira interesgarriak esku artean dugun honetan aplikatzeko, eta, aurretik egindako lanen berri izatea komenigarria izan ohi denez dagoeneko aztertuta edo landuta dauden kontuetan indarrak alferrik ez xahutzeko, biak ala biak hartu ditut aintzat eta abiapuntutzat nire lanerako.

## **2.7. Kode-alternantzia**

Hizkuntzen arteko ukipenari lotutako fenomeno bat da kode-alternantzia, gure artean oso ohikoa. Hizketaldi batean bi hizkuntza edo bi gramatika-sistema txandakatzea da, funtsean. Inma Muñoak dioenez, gaiari buruzko ikerketa gutxi egin da, baina jaso izan da zenbait esparrutan izaten direla halako erabilerak, hala nola emakumeen edo gazteen hizkeretan, eskola-umeen artean eta abar. Haren ustez, interes falta hori izan da erabilera estigmatizatua delako, kode-alternantzia erabiltzea ez baita euskara ona (jatorra) erabiltzea.

Lan honetan, hiru mota bereiziko ditugu, Muñoak berak (Poplack-i jarraituz) egin bezala.

### 1.- Makulu-aldaketa

Hizkuntza batean egiten ari den elkarrizketan beste hizkuntza bateko makuluak sartzea (hau da, ez?). Talde honetan sartzten dira diskurtsoaren markatzaileak (ondo, ba, ados) eta baiezkotasuna/ezezkotasuna adierazteko elementuak ere (bai, ez).

### 2.- Perpausen arteko aldaketa

Perpausaren edo esaldiaren arteko mugen aldaketa da, esaldi edo perpaus bakoitza hizkuntza batean egotea.

### 3.- Perpaus barruko aldaketa

Perpaus edo esaldi barruan kodez aldatzea da; hitzaren mugen barruan ere gerta liteke (izen-sintagma, aditz-sintagma, izena, adjektiboak eta abar solasaldikoa ez beste hizkuntza batean agertzea).

Bereizi beharrekoak dira kode-alternantzia eta **maileguak**. Izan ere, maileguak jatorriz beste hizkuntza bateko elementuak izan arren, xede hizkuntzan maila guztietan egokituak

dira. Kode-alternantzia, berriz, jatorrizko hizkuntzan ageri dira elementu guztiak, gordin-gordin.

Eta, amaitzeko, aipa dezagun kode-alternantziatik eta mailegutik bereizi beharreko hirugarren bat: **kalkoa**. Juan Garziak honela definitzen du Kalko okerrak liburuan:

*“Hizkuntza batek beste baten eredutik berera egokitzen duen egiturari esaten zaio kalko (mailegu delakoa, berriz, prozedura gordinagoa da: bere horretan hartzen da elementu bat). Hitza ez da, berez, gaitzespeneko. Askotan bezala, ordea (kritika hitzarekin, adibidez, antzeko zerbait gertatzen da), txarrera hartzen da besterik gabe kalko hitza, hots, kalko oker zentzuan.”*

## **2.8. Textspeak edo idazkera kolokiala**

Hizkera aipatu dugu orain arte, ahozkoari erreferentzia eginez. Dena dela, SMSen zabalkundearekin (baita Internetekin ere), ahozko hizkera idatzira ere zabaldu zen, eta esan liteke gazte-hizkerak beste esparru bat hartu zuela. SMSetako idazkera oso eztabaidatua izan da sortu zenetik. Hitzak ez dira osorik idazten, ortografia-arauak ez dira betetzen... Horrek hainbat kezka eta beldur eragin ditu. Baina erakarri ere jende ugari erakarri du. Hona hemen David Crystalen iritzia:

*“Textspeak delakoak izango al du eraginik hizkuntza osoan? Egia esan, ez dut uste.*

*Leku-muga estuak uzten dizkigun teknologia batera egokitzea da textspeakeko estiloa erabiltzeko arrazoia, eta halako mugarik ez dugunean ez dugu zertan hizkera laburtua erabili. Esan dugun bezala, gazteen (eta gazte-jitekoen) artean ondo gelditzen da hizkera hau erabiltzea eta hizkera horretako berezitasun batzuk beste leku batzuetara ere zabalduko dira; zenbait laburdura (LOL adibidez) hasiak dira ahozko hizkeran ere erabiltzen, esate baterako. Baina joera mugatuak dira horrelakoak.*

*Textspeak hizkerak aldekoak eta aurkakoak dauzka: batzuk txundituta daude erabilera horrekin, eta beste batzuk gogaituta. Ni, behinik behin, liluratuta nauka, hizkuntzan sormenez aritzeko eta hizkuntza ingurune desberdinetako beharretara egokitzeko dugun gaitasunaren azken adierazpena dela iruditzen zaidalako. Textspeaken bidez hizkuntzaren iraultza txiki bat ikusten ari gara.” (David Crystal)*

Euskal Herrian, eta euskararen alorrean, ETB1eko Mihiluze lehiaketak, SMSen idazkera erabiltzen duen proba baten bitartez, idazteko era hori zabaldu eta ezagutarazi du, gazteenen artetik harago.

Gaur egun, ordea, badirudi bukatzen ari dela SMSen garaia, eta hurrengo mailara iritsi garela. Izan ere, lan honetan parte hartu duten neska-mutil gazteenek (15-16 urtekoek) ia ez dute SMSrik erabiltzen, eta WhatsApp, Twitter edo Tuenti erabiltzen dituzte beren lagun eta ezagunekin komunikatzeko. Dena dela, agian laburdura gutxixeago erabiltzen

badituzte ere, SMSetako hizkeraren antzekoa erabiltzen dute bide berri horietan ere.

## 3. LANAREN HELBURUA ETA METODOLOGIA

### 3.1. Aztergaia eta abiapuntuko hipotesia

Azpeitiko gazteen eta euskararen arteko lotura aztertu nahi izan da lan honekin. Batetik, hizkera bera aztertu nahi izan da, hau da, **nola** egiten duten euskaraz. Denek herriko hizkera erabiltzen duten edo badagoen euskara batura jotzen duenik, denek herriko hizkera eginda ere hizkera hori berdina den ala ez, lagunartean hitanoa erabiltzen duten, kode-alternantziarik baden haien elkarrizketetan, gaztelaniaren zer interferentzia nabari diren...

Alde horretatik, abiapuntuko hipotesia da gazteenek agian batura, edo, besterik gabe, hizkera garbiaren eredu izan den Beterriko euskarara gehiago jotzen dutela. Haiek ere Azpeitiko hizkera egitea espero da, baina agian zenbait ezaugarri desberdinekin.

Bestalde, gazteen iritzia ere jaso nahi izan dut: zer iritzi duten beren hizkerari buruz, beste gazteen hizkerari buruz, herriko hizkerari buruz, gaztelaniarekin duten loturari buruz...

Alderdi horiek aztertzeaz gain, belaunaldien arteko alderaketa egin nahi izan dut hizkeraren alorrean, batzuek eta besteek nola hitz egiten duten ikusi ondoren, zer desberdintasun (edo berdintasun) dituzten aztertuz. Hori eginez, Azpeitiko gazte-hizkeran inolako bilakaerarik nabaritzen den ala ez ikusi nahi da: etorkizuneko gazte-hizkera nolakoa izango ote da? Jakin ote daiteke?

### 3.2. Metodologia

Lehenik eta behin, inkestak egin zaizkie (eranskinen atalean jasotzen da eredia), aztergaiaren inguruko hausnarketa egiteko elkarrizketari ekin aurretik: euskara zenbat erabiltzen duten eta zenbat gaztelania, beren hizkerari buruz zer iritzi duten, hitanoa erabiltzen duten ala ez, hari buruz zer iritzi duten... Hori eginez, gazte guztien iritzia jaso da bakarka, taldean eztabaidatu aurretik. Zuzenean ahoz eta taldean eztabaidatuz gero, baliteke iritzi indartsuren batek beste iritzi batzuk desagerraraztea, eta hori saihestu nahi zen.

Gero, gazteen elkarrizketak grabatu dira, beren artean nola hitz egiten duten aztertzeko. Elkarrizketatzaile/koordinatzailearen presentziak baldintzatu egiten du elkarrizketa, eta, elkarrizketaren batean, nabari da hori. Eztabaida-taldearen metodologian oinarritu naiz elkarrizketak egiteko. Ezaugarri hauek ditu eztabaida-taldearen metodologiak:

- *Hizketaldia da; gutxi batzuen arteko ahozko interakzioa. Partaideen artean harreman simetrikoak hedatzen dira.*
- *Testuinguru linguistikoa (teknikak hedatzen duen hizkuntz harreman sarea) zabala da, teknika honen oinarria hizketa irekia delako.*
- *Testuinguru existentziala (teknikak bere egoeran hedatzen duen gizarte harreman sarea) zabala da; hala ere ez guztiz zabala, taldea gizarte kategoria batzuen arabera egituratzen delako. (Hiznet, 2.1 gaia)*



Elkarrizketarako gaia azterketa honen beraren gaia izan da, inkestan ere galdetzen zena (Azpeitiko hizkeraren kalitatea/kantitatea, Azpeitiko gazteen hizkera, gaztelaniarekiko harremana...), gazteek beren iritziak eztabaida zitzaten.

Hizkera jasotzeko hirugarren modu gisa, gazteen idazkera informala, lagunartekoa, erabili dut: lagunei idaztean (izan SMS bidez, Twitter bidez, Tuenti bidez, Facebook bidez edo WhatsApp bidez) nola jokatzan duten eta zer hizkera erabiltzen duten ikusi ahal izan dut hala.

### **3.3. Lagina**

Lan honetarako lagina 20 azpeitiar gaztek osatu dute: hamar gazte 15-16 urtekoak, eta beste hamar 26-27 urtekoak. Guztiak dira gazteak, baina badago aldea adin batetik bestera. Gazteenak herrian bizi dira, eta ikastolan ikasten ari dira. Zaharrenetan, berriz, ikasketak bukatuta dauzkate guztiek, askok herritik kanpora joan behar izan dute ikastera, eta lanean ari dira (edo langabezian daude). Esan bezala, gazteak dira guztiak, baina ezin ukatu etapa desberdinak bizi dituztela. Adin-tarte hori erabiliz, gazte-hizkera zer bilakaera izaten ari den (edo inolako bilakaerarik izan duen/izaten ari den) ikusi nahi izan da.

Taldea homogeneoa izan zedin, guztiak ere ikastetxe bereko ikasle edo ikasle ohiak dira, Azpeitiko Ikastola Ikasberrikoak. Josu Goenaga eta Eider Alkortaren ikerketan erabilera-emaiztarik onenak zituen ikastetxea da, eta, alde horretatik, badirudi han aurkitu litezkeela hiztunik osoenak eta euskarazko gazte-hizkeraren eredia emango digutenak. Litekeena da herri guztiko gazteen ordezkari ez izatea, baina, hiztun osoenak izan balitezke, euskarazko gazte-hizkerarik bada, hauek izan beharko dute erabiltzaileak, ez bairik gabe.

Gazteak adinaren arabera bereizteaz gain, neska eta mutilak bereiz egin zaie elkarrizketa. Hamarreko taldeak handiegiak dira elkarrizketa egiteko, eta, hortaz, adin bakoitzean bosteko bi talde osatu dira, bost neska eta bost mutil. Batetik, lagun-taldeen osaera ohikoena delako bereizi dira sexuaren arabera (elkarrizketatutako gazteen lagun-taldeak sexuaren arabera bereiziak dira), eta, bestetik, ikusteko Maitane Izagirreraren laneko ondorioak (toka eta noka egitearen arteko aldea) eta Josu Goenaga eta Eider Alkortarenekoak (mutilak hizkera zabarragoa ote duten, neskek hizkuntzarekiko ardura handiagoa ote duten) baieztatzen diren ala ez.

Hiztunen fitxetan, hiztunen izen-abizenen siglak baino ez dira jaso, eta, izenen bat aipatzen dutenean, lehen letra soilik agertzen da.

**3.3.1. Hitzunen fitxak****1. taldea, mutil gazteenak**

<b>Izen-abizenak: A.G.-1</b>	
<b>Adina: 16</b>	<b>Jaioterria: Azpeitia</b>
<b>Amaren jaioterria: Azpeitia</b>	<b>Aitaren jaioterria: Azpeitia</b>

Euskaraz hitz egiteko gaitasuna

	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
<b>Amak</b>	X				
<b>Aitak</b>	X				
<b>Zuk</b>	X				

Euskararen erabilera

	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Erdia inguru	Euskaraz oso gutxi	(la) bat ere ez
<b>Etxean</b>	X				
<b>Bizimoduan</b>	X				

<b>Izen-abizenak: J.O.</b>	
<b>Adina: 15</b>	<b>Jaioterria: Azpeitia</b>
<b>Amaren jaioterria: Azpeitia</b>	<b>Aitaren jaioterria: Azpeitia</b>

Euskaraz hitz egiteko gaitasuna

	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
<b>Amak</b>	X				
<b>Aitak</b>	X				
<b>Zuk</b>	X				

Euskararen erabilera

	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Erdia inguru	Euskaraz oso gutxi	(la) bat ere ez
<b>Etxean</b>	X				
<b>Bizimoduan</b>	X				

<b>Izen-abizenak: A.G.-2</b>	
<b>Adina:15</b>	<b>Jaioterria: Azpeitia</b>
<b>Amaren jaioterria: Errezil</b>	<b>Aitaren jaioterria: Urrestilla (Azpeitia)</b>

Euskaraz hitz egiteko gaitasuna

	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
<b>Amak</b>	X				
<b>Aitak</b>	X				
<b>Zuk</b>	X				

Euskararen erabilera

	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Erdia inguru	Euskaraz oso gutxi	(la) bat ere ez
<b>Etxean</b>	X				
<b>Bizimoduan</b>	X				

<b>Izen-abizenak: I.Z.</b>	
<b>Adina: 15</b>	<b>Jaioterria: Azpeitia</b>
<b>Amaren jaioterria: Oiartzun</b>	<b>Aitaren jaioterria: Azpeitia</b>

Euskaraz hitz egiteko gaitasuna

	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
<b>Amak</b>		X			
<b>Aitak</b>	X				
<b>Zuk</b>		X			

Euskararen erabilera

	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Erdia inguru	Euskaraz oso gutxi	(la) bat ere ez
<b>Etxean</b>	X				
<b>Bizimoduan</b>	X				

<b>Izen-abizenak: A.G.-3</b>	
<b>Adina: 16</b>	<b>Jaioterria: Azpeitia</b>
<b>Amaren jaioterria: Azkoitia</b>	<b>Aitaren jaioterria: Errezil</b>

## Euskaraz hitz egiteko gaitasuna

	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
<b>Amak</b>	X				
<b>Aitak</b>	X				
<b>Zuk</b>	X				

## Euskararen erabilera

	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Erdia inguru	Euskaraz oso gutxi	(la) bat ere ez
<b>Etxean</b>	X				
<b>Bizimoduan</b>	X				

## 2. taldea, neska gazteenak

<b>Izen-abizenak: M.A.-1</b>	
<b>Adina: 16</b>	<b>Jaioterria: Azpeitia</b>
<b>Amaren jaioterria: Azpeitia</b>	<b>Aitaren jaioterria: Azkoitia</b>

Euskaraz hitz egiteko gaitasuna

	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
<b>Amak</b>	X				
<b>Aitak</b>	X				
<b>Zuk</b>	X				

Euskararen erabilera

	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Erdia inguru	Euskaraz oso gutxi	(la) bat ere ez
<b>Etxean</b>	X				
<b>Bizimoduan</b>	X				

<b>Izen-abizenak: M.A.-2</b>	
<b>Adina: 15</b>	<b>Jaioterria: Azpeitia</b>
<b>Amaren jaioterria: Azpeitia</b>	<b>Aitaren jaioterria: Zestoa</b>

Euskaraz hitz egiteko gaitasuna

	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
<b>Amak</b>	X				
<b>Aitak</b>	X				
<b>Zuk</b>	X				

Euskararen erabilera

	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Erdia inguru	Euskaraz oso gutxi	(la) bat ere ez
<b>Etxean</b>	X				
<b>Bizimoduan</b>	X				

<b>Izen-abizenak: A.B.</b>	
<b>Adina: 16</b>	<b>Jaioterria: Azkoitia</b>
<b>Amaren jaioterria: Aizarnazabal</b>	<b>Aitaren jaioterria: Itziar</b>

Euskaraz hitz egiteko gaitasuna

	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
<b>Amak</b>	X				
<b>Aitak</b>	X				
<b>Zuk</b>	X				

Euskararen erabilera

	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Erdia inguru	Euskaraz oso gutxi	(la) bat ere ez
<b>Etxean</b>	X				
<b>Bizimoduan</b>	X				

<b>Izen-abizenak: M.B.</b>	
<b>Adina: 15</b>	<b>Jaioterria: Azpeitia</b>
<b>Amaren jaioterria: Azpeitia</b>	<b>Aitaren jaioterria: Azpeitia</b>

Euskaraz hitz egiteko gaitasuna

	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
<b>Amak</b>	X				
<b>Aitak</b>	X				
<b>Zuk</b>	X				

Euskararen erabilera

	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Erdia inguru	Euskaraz oso gutxi	(la) bat ere ez
<b>Etxean</b>	X				
<b>Bizimoduan</b>	X				

Izen-abizenak: I.O.

Adina: 16

Jaioterria: Azpeitia

Amaren jaioterria: Madril. 5 urte zituenetik EHn.

Aitaren jaioterria: Itziar

Euskaraz hitz egiteko gaitasuna

	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
Amak	X				
Aitak	X				
Zuk	X				

Euskararen erabilera

	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Erdia inguru	Euskaraz oso gutxi	(la) bat ere ez
Etxean	X				
Bizimoduan	X				

## 3. taldea, neska zaharrenak

<b>Izen-abizenak: O.A.</b>	
<b>Adina: 27</b>	<b>Jaioterria: Azpeitia</b>
<b>Amaren jaioterria: Azpeitia</b>	<b>Aitaren jaioterria: Azpeitia</b>

Euskaraz hitz egiteko gaitasuna:

	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
<b>Amak</b>	X				
<b>Aitak</b>	X				
<b>Zuk</b>	X				

Euskararen erabilera

	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Erdia inguru	Euskaraz oso gutxi	(la) bat ere ez
<b>Etxean</b>	X				
<b>Bizimoduan</b>	X				

<b>Izen-abizenak: A.L.</b>	
<b>Adina: 27</b>	<b>Jaioterria: Azpeitia</b>
<b>Amaren jaioterria: Ezkio-Itxaso</b>	<b>Aitaren jaioterria: Azpeitia (Matxinbenta)</b>

Euskaraz hitz egiteko gaitasuna

	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
<b>Amak</b>	X				
<b>Aitak</b>	X				
<b>Zuk</b>	X				

Euskararen erabilera

	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Erdia inguru	Euskaraz oso gutxi	(la) bat ere ez
<b>Etxean</b>	X				
<b>Bizimoduan</b>	X				



<b>Izen-abizenak: A.G.</b>	
<b>Adina: 26</b>	<b>Jaioterria: Azpeitia</b>
<b>Amaren jaioterria: Urdaneta (Aia)</b>	<b>Aitaren jaioterria: Urrestilla (Azpeitia)</b>

Euskaraz hitz egiteko gaitasuna:

	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
<b>Amak</b>	X				
<b>Aitak</b>	X				
<b>Zuk</b>	X				

Euskararen erabilera

	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Erdia inguru	Euskaraz oso gutxi	(la) bat ere ez
<b>Etxean</b>	X				
<b>Bizimoduan</b>	X				

<b>Izen-abizenak: J.P.</b>	
<b>Adina: 26</b>	<b>Jaioterria: Beizama</b>
<b>Amaren jaioterria: Lasarte</b>	<b>Aitaren jaioterria: Beizama</b>

Euskaraz hitz egiteko gaitasuna

	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
<b>Amak</b>	X				
<b>Aitak</b>	X				
<b>Zuk</b>	X				

Euskararen erabilera

	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Erdia inguru	Euskaraz oso gutxi	(la) bat ere ez
<b>Etxean</b>	X				
<b>Bizimoduan</b>	X				

<b>Izen-abizenak: A.I.</b>	
<b>Adina: 27</b>	<b>Jaioterria: Azpeitia</b>
<b>Amaren jaioterria: Aizpurutxo (Azkoitia)</b>	<b>Aitaren jaioterria: Errezil</b>

## Euskaraz hitz egiteko gaitasuna

	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
<b>Amak</b>	X				
<b>Aitak</b>	X				
<b>Zuk</b>	X				

## Euskararen erabilera

	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Erdia inguru	Euskaraz oso gutxi	(la) bat ere ez
<b>Etxean</b>	X				
<b>Bizimoduan</b>	X				

## 4. taldea, mutil zaharrenak

<b>Izen-abizenak: B.E.</b>	
<b>Adina: 27</b>	<b>Jaioterria: Azpeitia</b>
<b>Amaren jaioterria: Azpeitia</b>	<b>Aitaren jaioterria: Urretxu</b>

## Euskaraz hitz egiteko gaitasuna

	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
<b>Amak</b>	X				
<b>Aitak</b>	X				
<b>Zuk</b>	X				

## Euskararen erabilera

	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Erdia inguru	Euskaraz oso gutxi	(la) bat ere ez
<b>Etxean</b>	X				
<b>Bizimoduan</b>	X				

<b>Izen-abizenak: I.E.</b>	
<b>Adina: 26</b>	<b>Jaioterria: Azpeitia</b>
<b>Amaren jaioterria: Azpeitia</b>	<b>Aitaren jaioterria: Azpeitia</b>

## Euskaraz hitz egiteko gaitasuna

	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
<b>Amak</b>	X				
<b>Aitak</b>	X				
<b>Zuk</b>	X				

## Euskararen erabilera

	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Erdia inguru	Euskaraz oso gutxi	(la) bat ere ez
<b>Etxean</b>	X				
<b>Bizimoduan</b>	X				

**Izen-abizenak: J.L.-1****Adina: 27****Jaioterria: Azpeitia****Amaren jaioterria: Azpeitia****Aitaren jaioterria: Azpeitia**

Euskaraz hitz egiteko gaitasuna

	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
<b>Amak</b>	X				
<b>Aitak</b>	X				
<b>Zuk</b>	X				

Euskararen erabilera

	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Erdia inguru	Euskaraz oso gutxi	(la) bat ere ez
<b>Etxean</b>	X				
<b>Bizimoduan</b>	X				

**Izen-abizenak: J.M.****Adina: 27****Jaioterria: Azpeitia****Amaren jaioterria: Larraul****Aitaren jaioterria: Bidania-Goiatz**

Euskaraz hitz egiteko gaitasuna

	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
<b>Amak</b>	X				
<b>Aitak</b>	X				
<b>Zuk</b>	X				

Euskararen erabilera

	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Erdia inguru	Euskaraz oso gutxi	(la) bat ere ez
<b>Etxean</b>	X				
<b>Bizimoduan</b>	X				

<b>Izen-abizenak: J.L-2</b>	
<b>Adina: 27</b>	<b>Jaioterria: Azpeitia</b>
<b>Amaren jaioterria: Azpeitia</b>	<b>Aitaren jaioterria: Azpeitia</b>

## Euskaraz hitz egiteko gaitasuna

	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
<b>Amak</b>	X				
<b>Aitak</b>	X				
<b>Zuk</b>	X				

## Euskararen erabilera

	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Erdia inguru	Euskaraz oso gutxi	(la) bat ere ez
<b>Etxean</b>	X				
<b>Bizimoduan</b>	X				

## 4. INKESTEN EMAITZAK

Idatzizko galderak egin zitzaizkien lehenik, gazteek iritzia eman zezaten. Bide horretatik, elkarrizketa baino lehen hausnarketa bat egitea lortu nahi zen, eta nork bere iritzia bakarka ematea, taldeko iritzi indartsuren batek besteak ez jateko. Hemen laburbiltzen dut hala jasotako informazioa. Iritzi-ematean, oro har, ez ditut bereizi neska-mutil gazte-zahar multzoka, hitanoaren alorrean izan ezik. Ahozko elkarrizketak egitean gai bera jorratu denez, haietan iritzi desberdinen bat edo aipatzea merezi duen konturen bat egonez gero, hemen txertatu dut, inkestetako emaitzen ondoren.

### **4.1. Herriko euskara: kalitatea eta kantitatea**

Gazte gehienek adierazi dute Azpeitiko euskararen kalitatea ona edo nahiko ona dela. Batzuek arrazoiak ere gehitu dituzte: hitanoa erabiltzen delako eta aditz trinkoak erabiltzen direlako duela kalitate ona batek, beste batek euskalki desberdina delako eta horrek kalitatea erakusten duelako, eta, azkenik, herri handia dela kontuan izanda, ondo egiten dela esan du hirugarren batek. Kalitate ona izan arren, gazte batek aipatu du euskara itxia dela Azpeitikoan, euskara menderatzen ez dutenek arazoak omen dituztelako azpeitiarrak ulertzeko.

Bi gaztek uste izan dute agian beste herri batzuetan baino okerrago egiten dela, baten ustez, Azpeitikoan sinpleagoa delako eta hitanoa gaizki erabiltzen delako. Deigarria da kalitate ona justifikatzeko erabiltzen den arrazoietako bat (hitanoaren erabilera) agertzea aurkakoa justifikatzeko ere (hitanoa gaizki erabiltzea).

Ahozkoan, aipatu da zer herritan egiten omen den Azpeitian baino hobeto: Hernanin, Goierriin, Tolosaldean, Zarautzen... Bestalde, esan dute herri batzuetakoek ez dietela ulertzen azpeitiarrei.

Kantitateaz galdetuta, ordea, erantzunak oso desberdinak dira. Askoz positiboago ikusten dute gazteek alderdi hori. Beste herri askotan baino gehiago egiten dela diote, ia guztiek edo guztiek erabiltzen dutela, horretan parekorik ez duela Azpeitiak, umeen artean nagusiki euskaraz egiten dela, guraso erdaldunak dituztenek ere euskaraz egiten dutela euskaldunekin... Batek dio entzun izan duela lehen kanpoko jende gutxiago zegoenez gehiago entzuten zela euskaraz, baina bere ustez hori ez dela hala. Aipatzekoak dira, halaber, gazte batek esan duela euskara asko erabiltzen dela, eta, horren ondorioz, gaztelania ez dela menderatzen, eta, beste batek esan duela hobetu litekeela kantitate aldetik, aspaldi etorritako etorkinek eta gaur egungoek ikasiko balute.

### **4.2. Gazteen hizkera**

Gazteen hizkeraz galdetuta, hizkera ona dela edo ondo egiten dela da iritzi nagusia, baina, herriko hizkeraren kalitateaz galdetzean bezala, hemen ere ñabardura gehiago sartzen dituzte kantitate-alorrean baino.

Gehienek esan dute ondo hitz egiten dela, baina erdal hitzak sartzen direla gero eta

gehiago, edo erdal hitz gehiegi erabiltzen direla aukeran, edo erdarakadak erabiltzen direla, edo batzuetan akatsak egiten direla.

Puntu hau positiboena ikusi dutenek hitanoa ere aipatu dute. Batek esan du ondo hitz egiteaz gain hitanoa ere erabiltzen dela, eta, mutil batzuek neskei toka egin arren, joera hori zuzentzen ari dela uste duela. Beste batek ere esan du ondo egiteaz gain hitanoa ere mantentzen dela, baina aitortu du toka egiteaz ari zela, noka ez delako hainbeste egiten.

Ulermena aipatu du batek. Azpeitiko euskara bera desberdina dela, eta gazteena are desberdinagoa. Hori dela eta, beste herrietakoek ez omen diete ulertzen Azpeitiko gazteei.

Eta, iritzi negatiboak dituztenetatik, berriz, nabarmentzekoa da kalitate-jaitsiera aipatu dutela hiruk. Batek, erdal jatorriko gero eta hitz gehiago erabiltzen direlako (deigarria, hemen ere, beste batzuek ere aipatu dutela erdal jatorriko hitzak erabiltzea, baina, hala ere, uste dutela ondo hitz egiten dela). Bigarren batek, berriz, esan du gazteek jergak erabiltzen dituztela, eta horrek kalitatea galarazten duela. Hala ere, uste du nahi dutenean badakitela ondo hitz egiten. Hirugarren batek, azkenik, esan du euskara asko erabili arren kalitatea galdu egin dela. Hitzetan ez omen du nabari, egituretan baizik, gaztelaniak gero eta eragin handiagoa omen du horretan. Adibide bat jarri du: "*Biyer plaira jute gea?*" "*jungo gea*" esan beharrean.

Elkarrizketetan, halaber, aipatu da batzuk ez dituztela bereizten *ll* eta *y*: *saninazilluek, ogille...*

### **4.3. Denek berdin egiten dute?**

Azpeitian denek berdin hitz egiten ote duten galdetuta, ikusi nahi izan dut jabetzen ote diren herrian bertan hizkera bat baino gehiago daudela. Galdera ireki horrekin, bakoitzak zer nabarmentzen duen ikusi nahi izan da. Gero, zehatzago, hiru esparruri buruz galdetu zaie: adina (zahar eta gazteak), ikastetxeak eta auzoak.

Galdera orokorrean, nabarmen ikusten da ohartzen direla herrian ez dagoela hizkera bakar bat. Bakarrak erantzun du baietz, denek berdin egiten dutela. Gainerakoek alderdi ugaritatik heldu diote galderari, bakoitzak gertuko ikusten duenaren arabera. Hauek aipatu dira:

- Auzo batzuetan hizkera desberdina dago (Urrestilla, Nuarbe, Lasao)
- Hitzunaren gurasoen jatorria antzeman egiten da
- Zenbat eta gazteago, orduan eta okerrago hitz egiten da. Aldea handituz doa.
- Inguruko jendearen arabera da
- Batzuek gaztelaniaz soilik egiten dute, beste batzuek euskara eta gaztelania txandakatuz, eta, beste batzuek, berriz, beti euskaraz
- Batzuek hika egiteko joera handiagoa dute
- Ohitura handiagoa dutenek hobeto hitz egiten dute
- Gazteok beste espresio batzuk asmatzen ditugu, hitz xelebreak

Ikus dezagun orain, atalez atal, zer desberdintasun ikusten dituzten.

### 4.3.1. Zahar eta gazteak

Bakarrak eman du baiezko biribila, baietz, berdin egiten dutela zahar eta gazteek. Gainerako guztiek uste dute badagoela aldea batzuen eta besteen artean.

Kantitatea aipatu nahi izan duten guztiak bat datoz: zaharrek gutxiago egiten dute euskaraz gazteek baino. Zaharrek erdararako joera handiagoa dutela, zenbakiak-eta gaztelaniaz erabiltzen dituztela eta batzuek *guay* izan nahian gaztelaniaz hitz egiten dutela aipatu dira.

Kalitatea aipatu dutenek, berriz, esan dute zaharrek hobeto egiten dutela euskaraz: garbiago egiten dutela, haien euskara aberatsagoa dela, gazteek erdararen eragin handiagoa dutela, zenbat eta gazteago izan okerrago egiten dela euskaraz, zaharrek hobeto josten dituztela esaldiak eta esaera zaharrak eta hitanoa erabiltzen dituztela...

Azkenik, beste batzuek, hizkera zaharrak eta hizkera gazteak bereizi dituzte: zaharrek errespetu handiagoarekin hitz egiten dietela elkarri eta gazteek gutxiagorekin, zaharrek euskara zaharragoa erabiltzen dutela eta gazteek hitz berriak dituztela, asmatutako hitzez aparte gazteek aditzak desberdin erabiltzen dituztela, euskara moldatu egin dela gazteen nahi eta beharretara, zaharrek "lehengo euskara" gehiago egiten dutela (esaerak-eta erabiliz).

### 4.3.2. Ikastetxeak

Erdi eta erdi. Erdiek uste dute eskola guztietan berdintsu hitz egiten dela, eta beste erdiak, berriz, ados daude: Iraurgi ikastetxean (ikastetxe erlijioso da) hitz egiten da gutxienean edo okerrean. Oro har, aipatu dute erdaraz gehiago egiteko joera dutela Iraurgiko ikasleek, edo erdarazko hitz gehiago erabiltzen dituztela. Bik aipatu dute familia erdaldunetan joera handiagoa izan dela seme-alabak hara eramateko, eta horregatik nabaritzen dela aldea. Batek aipatu du Urolan eta Ikasberrin kalitate handiagoz hitz egiten dela, beste batek Ikasberrin gehiago egiten dela Iraurgin baino, eta, beste batek, bere ustez gehiena Ikasberrin egingo dela.

### 4.3.3. Auzoak

Ez, auzo guztietan ez da berdin hitz egiten. Nabarmendu dute auzo batzuetan badirela hizkera bereziak. Batzuek aipatu dute herritik zenbat eta urrunago egon, orduan eta nabariagoa dela. Beste batzuek esan dute baserri-inguruko auzoetan gehiago eta hobeto hitz egiten dela. Urrestilla, Nuarbe, Lasao, Matxinbenta eta Oñatz auzoak aipatu dituzte.

Kantitatearen aldetik begiratuta, sei lagunek aipatu dute auzoren batean gutxiago egiten dela. Hiruk bakarrik aipatu dute izena, baina badirudi guztiak Sanjuandegi auzoari buruz ari direla. Esan dute etorkin-kopuru handiagoa dagoelako egiten dela



gutxiago euskaraz Sanjuandegin beste auzoetan baino. Hala ere, batek nabarmendu nahi izan du etorkin horien seme-alabek gaur egun euskaraz egiten dutela.

#### **4.4. Batua ala euskalkia?**

Honetan, ados daude guztiak. Nahiago dute euskalkia erabili, eta huraxe erabiltzen dute gehiena. Lagunekin hitz egiteko, sare sozialetan, SMSetarako... euskalkia nahiago dute. Euskara batua ere erabiltzen dute, ordea; inkestak euskara batuan bete dituzte guztiek batek izan ezik, eta hark ere adierazi du (euskalkian adierazi ere) idazteko batua erabili ohi duela. Batua ikastolarako eta lanerako erabiltzen dute. Batek esan du egoera formaletarako erabiltzen duela euskara batua, baina gutxitan izaten duela euskaraz egoera formalik.

#### **4.5. Hitanoa**

Guztiak erabiltzen dute, neska gazteenen taldekoek izan ezik. Azken talde horretan, bik esan dute batzuetan erabiltzen dutela, baina erabilera murrizta dute oso. Badaude desberdintasunak: neska gazteenek ez dute erabiltzen ez neska eta ez mutilekin, ia-ia. Mutil gazteenek mutilekin soilik erabiltzen dute. Neska zaharrenek neska zein mutil, guztiak erabiltzen dute, eta mutil zaharrenek, berriz, gehienbat mutilekin, baina baita neska batzuekin ere. Aipatu dute konfiantza ematen dutela hitanoak, praktikoa dela, polita, zuzenagoa, aberasgarria euskararentzat, ikasi beharrekoa dela.

Inoiz erabiltzen ez dutenek esan dute, batetik, erabiltzen jakin arren, inoiz erabiltzen ez dutenez, arraroa egiten zaiela, eta, bestetik, mutilen artean normala iruditu arren, norberari egitea ez zaiela gustatzen, txantxa gisa-edo ez bada.

Gero, zehatzago galdetu zaie noka egiteari buruz. Esan zaie badirudiela galtzear dagoela, eta erantzun behar izan dute ados dauden ala ez, eta zer iruditzen zaien.

Ia guztiak daude ados, eta badakite noka ia ez dela egiten. Lauk soilik eman dute ezezkoa. Batek dio ez dagoela guztiz ados, neska batzuk entzuten omen dituelako noka (neska gazteenetako bat da, eta ez du hitanoa erabiltzen, ez neskekin eta ez mutilekin). Beste bi, berriz (neska helduenak), neska zein mutilekin, toka zein noka egiten dutenetakoak dira. Batek esan du bere ustez gero eta gehiago erabiltzen dutela gazteek, eta, besteak, berriz, ez duela uste galtzear dagoenik, bere inguruan hitanoa erabiltzen delako. Laugarrenak ez du uste galtzear dagoenik; haren iritziz, gehiago erabili behar litzateke.

Gainerako guztiek argi ikusi dute baietz, noka egiteko ohitura galtzear dagoela. Azalpen batzuk ere eman dituzte: egunetik egunera gutxiago egiten dela (helduek zertxobait, gazteek gutxi), normalean ez dutela erabiltzen, hogeit bat urtetik beherako nesken artean gutxi entzuten dela, azken urteetan bultzada jaso arren galtzen ari dela, jadanik ematen duela hitanoa mutilen kontua bakarrik dela, eta ez dela ikasten neskei nola egin behar zaien, eta, martxa horretan, galdu egingo dela.

Nabarmentzekoa da, halaber, askok aipatu dutela euskararen aberastasuna dela, gure kulturaren zati bat, gure hizkuntzaren parte garrantzitsua... Eta, iritzi horien ondoren, esaten dute ez luketela nahi galtzerik. Hori diote inorekin erabiltzen ez dutenek ere, bai eta besteek berari hika egitea gustuko ez duen neska gazteak ere.

Galdera honetan agertu diren beste erantzun batzuk dira neska batzuek beren artean toka egiten dutela, eta zenbaitek errespetu faltatzat hartzen duela hika egitea, eta horrek ere eragingo zuela galera.

Ahozkoan, nabarmentzekoa da neska-talde zaharreneko batzuek ez zutela uste noka gero eta gutxiago egiten zenik, eta are gutxiago galtzear zegoenik. Harrituta entzun dute, eta lanak izan dituzte sinesten.

## **4.6. Kultura-kontsumoa**

### MUSIKA

Musika zer hizkuntzatan entzuten duten galdetuta, erantzun hauek bildu ditugu:

- 8 lagunek euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez
- 5 lagunek denetik
- 3 lagunek denetik, baina gehiena euskaraz
- 2 lagunek ingelesez eta euskaraz
- 2 lagunek euskaraz eta gaztelaniaz

### TELEBISTA

Telebista zer hizkuntzatan ikusten duten galdetuta, berriz, erantzun hauek jaso ditugu:

- 14 lagunek euskaraz eta gaztelaniaz
- 3 lagunek gehienbat gaztelaniaz
- 2 lagunek euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez
- Lagun batek gehienbat euskaraz

Euskarazko eta gaztelaniazko telebista ikusten dutenetako batek esan du ETB1eko programazioa hobea balitz beharbada gehiago ikusiko lukeela euskarazko telebista. Gehienbat gaztelaniazko telebista ikusten dutenetako batek, berriz, esan du “zoritxarrez” gaztelaniazkoa ikusten duela gehienbat.

## **4.7. Gaztelania**

Lehenik, galdetu zaie gaztelania erabiltzen ote duten. Ezezko biribila hiruk bakarrik eman dute. Gainerakoek, ordea, egoera jakin batzuekin lotu dute gaztelaniaren erabilera: lanean edo ikastolan (gaztelaniako eskolan) erabiltzen dute, adinaren arabera. Gutxi batzuek esan dute batzuetan erabiltzen dutela, euskaraz ez dakitenekin, ondo ez dakitenekin, edo familiako kide batzuekin (ez gertuko familiakoak, dena dela).

Gero, galdetu zaie beren ustez gaztelaniak eragin handia ote duen Azpeitian euskaraz hitz egiten denean. Gehienek nabari dute eragin hori, dirudienez. Izan ere, lau lagunek bakarrik esan dute ez duela eraginik gaztelaniak Azpeitiko euskarari. Gehienek baietz uste dute, baduela eragina, baina ez handi-handia ere. Lexikoan ikusten dute eragin hori, batik bat. Askok aipatu dute erdarazko hitzak sartzen dituztela elkarrizketan ohartu gabe, baita gaztelaniaz egiteko joerarik ez eta euskaraz bakarrik hitz egiten dutenek ere. Bestelakoak ere aipatu dituzte, adibidez, egiturari ere baduela eragina gaztelaniak, bai eta egindako esaldietan ere (“ondo ematen naiz”, “norbait ondo erori”). Batzuek diote erdarakadak entzuten direla, baten ustez gero eta gehiago; beste baten ustez, zenbait hitz eta esaldi lotzerakoan erabiltzen dituzte batzuek erdarakadak, eta, hirugarren batek dioenez, gazteek erabiltzen dute erdarakada gehien. Amaitzeko, batek erantzun du gaztelaniak beti eragiten duela, eta euskaldunok beti izan dugula ohitura edo “errespetua” erdaldun bat egotean gaztelaniaz hitz egiteko, nahiz eta bakarra izan euskaraz ez dakiena.

Azkenik, galdetu zaie zer hizkuntzatan sentitzen diren erosoen harremanak egiteko, gaztelaniaz edo euskaraz, eta ea berdinean egiten dituzten harremanak euskaldun zein erdaldunekin. Guztiek erantzun dute erosoen euskaraz sentitzen direla. Dena dela, harremanak berdinean egiten ote dituzten galdetuta, guztiak ez datoz bat. Hiruk esan dute berdintsu egiten dituztela harremanak euskaldun zein erdaldunekin. Uste dut merezi duela hitzez hitz ekartzea galdera honetan agertu diren erantzunak.

- *Euskaraz askoz ere nahiago, ez baitakit ondo gaztelaniaz. Euskaldunekin gehiago ematen naiz.*
- *Ezta pentsatu ere. Oso gaizki hitz egiten dut erdaraz, eta, derrigorrezkoa bada hitz egiten dut, baina oso deseroso sentitzen naiz.*
- *Erdaldunekin egin ditudan harreman gehienak “behartutakoak” izan dira (laneari bezerekin, unibertsitateko lagunak euskaraz ez zekitelako...).*
- *Normalean erdaldunekin harremanak egitea gehiago kostatzen zait.*
- *Erdaldunekin harremanak egitea gehiago kostatzen zait. Nahiz eta erdaraz ondo hitz egin, zailtasunak ditut umorez hitz egiteko eta egoera informaletarako.*
- *Euskaraz nahiago dudarik gabe. Askotan nahiago dut erdaraz hitz egitea baino isilik gelditzea.*
- *Ez da berdina, baina hizkuntza baino pertsona nolakoa den garrantzitsuago iruditzen zait.*
- *Dударik gabe euskaldunekin harremana errazago, eta konfiantza lehenago hartzen da.*
- *Ez dakit erdaldun batekin nolako harreman estua edukiko nukeen, ez baitut inoiz euskaldun batekin eduki dudarik konfiantza eduki. Hala ere, ohituko nintzateke.*
- *Erdaldunekin gehiago kostatzen zait, nire erdara oso aldrebesa delako.*
- *Harremanak berdinean egiten ditut, baina nahiago euskaldunekin, izaeraz hobeto konpontzen naizelako eta errazago espresatzen naizelako.*

Ahozko elkarrizketetan, gazte gehienek esan dute zailtasunak izaten dituztela gaztelaniaz esan nahi dutena ondo adierazteko, eta gehienek dute pasadizoren bat horren kontura, kasuren batean grabatutako elkarrizketatik kanpo geratu bada ere. Zaharrenei, gainera, zaila egiten zaie beren burua bikotekide erdaldunarekin irudikatzea, eta horren inguruko txantxak egin dituzte, bi taldeetan.

## 5. AHOZKOAREN ETA LAGUNARTEKO IDAZKERAREN AZTERKETA

Ahozko hizkera aztertzeko, grabazioak egin dira lau gazte-taldeekin. Elkarrizketatzailea eta bost gazte elkartu dira guztietan. Aipatu behar da elkarrizketatzailea han izatearen eragina nabari dela, batik bat mutil gazteenen kasuan, ez baita lortu elkarrizketa osoa eta jarraitua izaterik. Gainerakoetan, berriz, hiztunek lasai jardun dutela esan liteke. Badakite euskara batuan hitz egiten, baita idazten ere (hala bete dituzte inkestak) baina inori ez zaio bururatzen lagunei mezuak euskara batuan idazterik.

### 5.1. Transkribatzeko irizpideak

Edukia transkribatzeko, Karmele Etxabek Hiznet graduondokorako egindako sakontze-egitasmoan (*Kode-alternantzia lagunarteko gazte-hizkeran*) erabilitako irizpide berei jarraitzea erabaki dut, antzeko lan baterako eta antzeko hizkera bat deskribatzeko erabili zirenez, lan honetarako ere baliagarri direlakoan. Hauek dira:

#### Forma

- Elkarrizketatzaileak esanak, batuan eta parentesi artean.
- Zerbait entzuten ez bada, (xxxx) markatuko da
- H beti agertuko da
- Transkribatu gabeko zatiak adierazteko, (...) erabiliko da

#### Bestelakoak

- -n + b > m: *baldima* (baldin bada)
- ERE beti bereizita, edozein dela ere forma: re, e (*baita re, nik e*)
- EZEZKOAK elkartuta idatziko dira (eztakit “ez dakit”, etzonat “ez zionat”). Baina aldaera fonetikorik gabekoak bereizita (ez genun).
- ETA kopulatiboa bereizita, edozein delarik ere forma: a, da, ta, eta (*Ta noa ta gañ(e)a Zarautzea, Tolosan? Da hemen?*). Baina multzoa adierazi nahi duenean, edota menpeko kausalak egiteko partikula denean, marratxoarekin (*irakaslikin-da*).
- ADIZKI PERIFRASTIKOAK apostrofearekin idatziko dira aldaketa fonetikoren bat baldin badago edo hizkiren bat galdu bada: *hitzeite'be, ulertze'in*.
- Kontsonante-galera dagoenean, ulermenerako arazo izan badaiteke, parentesi artean agertuko da (*Batzuk etzau(k)eabe ohituraiken*)
- N + b, p > n: kanpoa, konparauta... Ez da “n” ahoskatzen, “m” baizik, baina idazkera baturako hala erabiltzea erabaki denez, horri eutsiko zaio
- BUSTIDURA adierazi egingo da beti, *ñ, ll* eta *tt*-ren bidez (*baño, atte, billau*).

Idatzizko mezuak, berriz, bere horretan jaso ditut, aurreko irizpideei jarraituz gero jatorrizko testuingurutik aldendu eta beren izaera galduko zutelakoan, eta kolorez bereizi (urdinez), ahozkoetatik desberdintzeko.

## **5.2. Azterketa xehatua**

Lehenik eta behin, kode-alternantziaren gaiari helduko diogu. Gaztelaniaren interferentziaren zenbait adibide daude hemen, erabileraren erakusgarri izateko adina, behintzat.

### *Es que*

- *Es que eman ber etzakila ondo erderaz baño (...)*
- *Es que neretzako... Es que hori den hitze.*
- *Es que iñoi etzonat aitzen*
- *Es que haste haiz ondo gelditzeko zeoze esaten (...)*
- *Es que eztakit nik azkenin ondo...*
- *Es que ezin dek konparau*
- *Baño es que frantsesa baldima*
- *Es que egixe dek-eta*
- *eske belauneke lepo nekatze zaixkit..*
- *Sk O-i bialtzeiot d eztzayola allatzen esandit d orreatik...*

### *O sea*

- *O sea, euskeraz uste nun entenditze nula, (...)*
- *Eta mutillek zuka? O sea, hika?*
- *Bai, nik hori behintzet, o sea, bitu, ya geuk etzekiñau (...)*
- *O sea, nik jendii oñ asko aitze zako (...)*
- *O sea, hitzek eztiteula ondo ibiltzen*

### *Porque*

- *Ya, raru den, porque eon den, gurin eon den, gure edadin (...)*
- *(...) baño kriston salbaziyu den baita re porque euskeraz ulertu ulertze'in (...)*
- *Baño hori basarritan e bazion, porque... cincuenta, ta... hoyek...*
- *Nik bai, Portugaleteko horrekin bakarriken batuan ite't, porque horri azpeitiarrez hitzein ezkeo (...)*

### *Bueno*

- *Baño bestela, bueno, ba hik esan denana (...)*
- *Hitz batzuk fallatze'itutela, baño bueno, azkenin bai*
- *Bueno, bueno, goizien behintzat ateri!!!*
- *Bueno ba ni azkenien basarritar jantzita jungo naun (...)*
- *Bueno, nik atzo berrize pintura potie eman niñenan ta gaur pixket txukuno natxion (...)*
- *Bueno, oin junberra zakenat, atsaldien berrize konektako naun!*
- *weno hi eongo gaituk bueltan*
- *Beno beno.. igualduu*

**A ver**

- *Hombre, a ver (...)*
- *A ver, ezautu bai, baño a ver, ni... etzekiñat nola hitzeite'ben.*
- *aber eon beitu ingoet ze jarri nun*
- *(...) ta J-k etzakiyenan ze ordutan jungoien, segun pelukeitik noiz libratzean, haber A-k ze eiteun...*
- *(...) buelta txikin bat eingo nikin, haber bestiek ze esateben!*
- *Eskerrik asko!!aer noiz eite deun!*

**Hombre**

- *Hombre, a ver (...)*
- *Hombre, bazion, igual unibersidadin (...)*
- *Hombre, bai, baño Iraurgin bertan irakaslikin-da igual erderaz da hitzeite'bela*
- *(...) hombre, hi, hori bai, baño... ezingo'ik hasi billau ta ya euskeraz*

**Vale**

- *Hoyek vale, baño geyo?*
- *aa.. bale bale! oi galdetzenizun!*
- *Eztit usten geben bialiko bl?*

**Ya**

- *Ya, es que nik e ez.*
- *Ya, baño es que ezta.*
- *ya baño... ni alare ez.. eztakit!*
- *Yaa an bera sartu zan artan*

**Así que**

- *(...) porque nere attonak da eztakibe euskeraz, así que, harea jute naizenin beti erderaz (...)*
- *Nere ahizpen gelakui aituta nao, así que...*
- *(...) ta bueno azkenien gure apuntau ingaitun, asike ni enaun azalduko!*

**Ya que**

- *(...) afaye eitie pentsau geniñan, yake egualdi earra daon(...)*
- *Ya ke juntau inberdeun ta nik behintzet ordu hortak kixton gosie eukitze'ten...*
- *Ni nahiko lanekin, baño yake EREn gauden ba atsaldie jai (...)*

**Claro**

- *Ni akordatze naun behin hoixe, Irlandan o hola baita re ta c(l)aro han e españolak zarenan danak (...)*

**Como que**

- *Ta ni dantzan ibiltze naiz, da joe, herri diferente danetakukin, da danak batea hitzeiten, da... como que... oso ondo eztebela hitzeiten.*

**Tío**

- *Eske hori ezin da esan, tío.*

## Ves?

- *Es que ves, ze... (...) ze euskera jator da aberats daketen!*

## Ya está

- *Kantun bat aitu, sartze'ana pixket, gero ikaxi nola ibiltze'an da ya (e)stá.*

## Esaerak

- *De fuera vendrán y de casa te echarán*
- *Nada que ver*
- *O sea egiye e, nik de culo. Hamendiken gaxkiyena nik hitzeite'ñat. O sea... egiye e, de culo.*
- *No te jode!*
- *biyer ikastola ke ilision!!!ufaaa*
- *Y NO SE HABLA MAS!*
- *N-ko festak lo mejor! Kupela al poder!*
- *Ba nik azkenien kanbio de planes (...)*
- *Ba ni a lo mio, goizien goizetik egualdiyei beria:*
- *ta biajje ze de lujo ez?*

## Biraok eta irainak

- *Attonak ostia earrak emate ziztean nei attei hika iteatiken. Mekauen dios...*
- *Etortze'a erderaz, ta iñok etzeok kaso putaik in (...)*
- *Iruña ta Pamplona, da... nik beti Pamplona esate'iat. Ohitura putie*
- *(...) ostia, nik chumino zala pentsatze nian....*
- *Jodiu hai*
- *Baño Facebook ta Twitter da mierda hauek danak...*
- *Puuuuuutoooo Social Scienses.....!*
- *Gizaaaaaaarteee putieeeee!*

## Jo(d)(e)(r)

- *Joe, Bilboa, Bilbo aldea jute zea, ta... zea...*
- *Eske behin, hola, joe, traduziuta bezela dana erderatiken (...)*
- *Bai, baño joe, diferenti da*
- *Joe, ondo, esan nahi det... euskeraz ikixten ai da bat*
- *joeeee.. oi inbiriye!!*
- *Joe, gero ta txarro ai ditun esaten!!!*

Batzuk besteak baino gehiago, baina adibide ugari aurkitu dira elkarrizketa zein mezuetan. Gazteen diskurtsoko ohiko zati dira guztiak; hain sartuak daude haien hizkeran, ezen askotan ohartu ere ez baitira egiten gaztelaniazkoak direnik. Idatzi behar dituztenean ere euskal ortografiarara egokitzen dituzte gehienetan (*haber, aber, porke, asike, eske...*).

Horiez gain, eta, gazte-hizkerarekin lotu ez arren, aurkitu da beste era bateko alternantzia ere, gaztelaniaz izandako elkarrizketak-eta aipatzean erabiltzen dutena. Azalpena beti euskaraz ematen dute, baina aipua gaztelaniaz egiten dute:

- *Ni ikusite nao erderaz, zea, edadetu, andra bat, igual, euskaraz ondo jakin gabe hala re erderaz hitzeiti nahi, o... erderaz ondo jakin gabe halare erderaz hitzeiten, da, bat, da, aitze nun, da, esate zun: "y luego fue y compró gaztaie, y eztaize", ta ni parrez han. Es que eman ber etzakila ondo erderaz baño, eztait, erderaz hitzeiti nahi bezela.*
- *Haste zea beaiekin hitzeiten, da hola haste zaxkizu, ta.. "qué has dicho", esate'izu, ta... oso ondo.*
- *Ta gero galdetze'it "nuevo vocabulario, no?" Ta "sí, nuevo vocabulario".*
- *Ligatzekue, axkoitiarrana bada ba zea, istoriye. Ai omen tzan ligatzen neska batekin, da... zea, "hemos tenido una cena", ta: "Ah, si?", ta: "qué habéis comido?" Ta: "un chumino de trece kilos". Ta ja ta atxo horrek martxa, ta tipu moskeauta, jun lagunena, ta: "ze, ze pasau zak?" da "hola ta hola, ligatzen ai nitxian, da, ze afaldu deun galdeu zik, da esan tzoat: un chumino de trece kilos", da jajaja ta... Baño... guk... zea, antxumi jan tzeben. "Ta nola de(k) pa antxumie?" Ta: "cabrito", ta: "ostia, nik chumino zala pentsatze nian"....*
- *Aurreko astin hotsein niñenan Zarauzko denda, ta "si oye mira es que..." aber, nola esplikau, ta esplika ber nitxonan: atzo jun nitzena naiz. Eta... ber det tela puxketa bat. "Sí, necesito un... un cachito de tela", baño hola... hola, ta hori esateko igual ee... zemat e... ta es que...bestaldin daona aiko'a flipatzen, hau ezta natula.*
- *Ta leno esan denana re, "no sé qué y eztaki(t) ze"*

Edo, bestela, egiaz gertatutako elkarrizketa bat izan gabe ere, erdaldun batekiko elkarrizketa imajinatzean ere berdin jokatzeko dute. Kasu honetan, beren burua gaztelania-hiztun batekin ligatzen edo bikotekide gisa gaztelania-hiztun bat zutela imajinatzen ari ziren:

- *Nola ba, "te quiero" ta... "ayyy mi amor"*
- *Ya, baño, a ver, "sí, oye, tengo ahí... una cosa, un poco de axkure..."*
- *Ze esan be'yok, "te quiero"? Neski bildurtu!*

Interferentzia gehiago ere nabari dira gazte hauen hizkeran, kalko hauek, esate baterako:

- *Baño konparauta beste herriyekin, askoz gutxiyo*
- *Parre (b)atzuk bota gero...*
- *(...) encanta ite zat.*
- *(...) parreguri sartze zatzu.*
- *Ni ondo emate nauk hayekin.*
- *(...) horrenbestek erten giñenan korrika jendiek emate gindula aurea (...)*



Lexikoari dagokionez, hitz ugari aipa litezke, batzuk herriko ahozko hizkerako erabilera arruntekoak, beste batzuk, berriz, gazte-izaerari lotuak.

- *Korrektu zer dek, batua?*
- *Nik esan nian, ba kanbiya ingo'iat, da hika hasi nitxuan (...)*
- *Ebitatzi bazion ebitau*
- *Akordatzen interkanbiyu in genuin Bilbokuk?*
- *Baño eztu hain gaxki sonatzen*
- *Bai, ta igual dana... viejo bat dek, da beak dana zuka.. hika ite'ik, da hik dana zuka.*
- *Ta hori re igual eztiñat superako*
- *Nik behintzet enitxian pistolak eta joditzen.*
- *Tio E!rarue ta dana zonatzeik.jeje*

Horietatik, zail egiten da pentsatzea azken bostak helduagoek ere erabiliko dituztenik. Gazte-hizkeraren ezaugarritzat joko nituzke.

Idatzizkoan, beste hizkuntza batzuetatik euskarara egokitutako zenbait hitz ere badira:

- *Mertzi akordau zeaten danoi.*
- *Hello txikas!*
- *Boooondiaaa*

Bestalde, gazte-hizkerari egotz dakizkiokeen beste zenbait erabilera ere aurkitu ditut. Lehen adibidea, *hola*, barra-barra erabiltzen dute gazte batzuek, eta gutxiago besteek, baina beren diskurtsoan makulu erabilia da zalantzarik gabe.

*Hola*

- *Ezta(k)ipa, oñ hola esate(k)o baño, batzu(k) hola kalin da aitze'ie hola.*
- *Batzutan ikuste'a, hola, tuentiyen da hola, jendik ese ta zeta ta hola, eztaiz, gexki ibiltze'itula.*
- *Euskeraz gaxki hitzeite'benakin igual hola, erdera.*
- *Da ordun Donostiar bat etorri huan, komertzial bat, da hika atxui, ta atxu hola, pixket... flipatzen.*
- *Aitu izen ditun hola... etzeiñat, oñ etziten etortzen, baño*

Bigarrena, *lepo* (asko). Adierazkortasuna emateko hitza, eta euskaratik sortua, gainera. Barra-barra erabiltzen dute, baina, dirudenez, batzuek bakarrik. Gazte-talde zaharrenean soilik jaso da. Kasualitate hutsa ote zen jakin nahian, horri buruz galdetu zaio gero adin-talde gazteeneko bati, eta, haren ustez, *lepo* ez omen da jada hainbeste erabiltzen. “Moda” hori “pasatzen” ari omen da... Adin-talde zaharrenekoek, berriz, normal-normal erabiltzen dute, eta, esan dutenaren arabera, badirudi hala egiteko jarraitzeko asmoa dutela. Azpeitiko gaztetxeko fanzineak ere *Kontu lepo* du izena.

### Lepo

- *Bai, danak beti Xanjuandei, erdaldun lepo, baño...*
- *Nei lepo gustatze zat eta!*
- *Zarauzarrak e lepo hitzeite'gabe erderaz (...)*
- *Guk e lepo len hasi esaten, da beitu'yon. Ta uste'ñat hemendik bost urtea re esango deula.*
- *Nei behintzat, joe, ointxe lepo ta lepo esate'zu, ama nola kejatze zitzaten len, da... Hamar urte beranduo re esan ite'ñau, ta hemendik bost urtea re bai. Ta flipau re ba(i)etz esan.*

*Kriston* (oso) ere erabiltzen da, baina hau herriko eremutik haratago doa, Gipuzkoan behintzat edozein herritan entzun baitaiteke.

- *Bai, jendik kriston astakeyek*
- *Kriston solturie. Errez, errez*
- *O sea, kriston gaxki, e*
- *Batuan hitzein errez, oin, kriston inkomodue in*
- *Azpeitiarra kriston zakarra den, da.. bai zea!*

### Flipatu

- *Da ordun Donostiar bat etorri huan, komertzial bat, da hika atxui, ta atxu hola, pixket...flipatzen.*
- *(...) ta eske...bestaldin daona aiko'a flipatzen, hau ezta natula.*
- *Ba flipa ite al den, da hori gure gurasuk beñ e etziñabenan esango*

### Naturala

- *(...) bestaldin daona aiko'a flipatzen, hau ezta natula.*
- *Ikusi benetan naturala dala*

### Ja ta

- *(...) ta ja ta atxo horrek martxa, ta tipu moskeauta(...)*
- *Ni(k) askotan erderaz hitzeite'ibe, da ja ta azpeitiarrez*
- *(...) atraziyo baten zea in da ja ta eroi in hunala (...)*

*Atxo*. Mutilek erabiltzen dute, *neska* adierazteko. Gaztelaniazko *tipa*-ren antzeko zerbait.

- *Horko atxo hori bezela.*
- *Da ordun Donostiar bat etorri huan, komertzial bat, da hika atxui, ta atxu hola, pixket... flipatzen.*

Eta, lexikoaren atalean, elkarrizketaren zati izan ez arren, gazteek berek beste zenbait hitz ere aipatu dituzte, herrian erabiltzen direnak. Hala ere, gure lagineko hiztun-taldean ez dituzte erabiltzen hauetako gehienak.

- *Pertza (bakarrik)*
- *Erdipertz (erdibana)*
- *Piñue (mozkorra)*
- *Eskizue (geldirik egoten ez dena)*
- *Guapue*
- *Jarto*
- *Makinie*

Baina, hainbeste aldiz aipatutako adierazkortasun hori lortzeko, euskarak ere balio die batzuetan:

- *Nik ohitura haundiye daket erderaz hitzeite'benai euskeraz erantzuteko, baño askotan geratze zaxkitzu zuri-zuri inda aurrin, da erderaz bukatze'zu.*
- *Nere ama ta atte beti(d)anik izen di(e) euskeri in debenak, baño hoyei galdeu o pa(r)etiei galdeu... antzea.*
- *Emoixue ta motibaziyue tope. egurre!!*

Arauz kanpoko zenbait erabilera ere badaude gazte hauen hizkeran. Nahita egindakoak, helduei/arauari aurka egiteko, edo ezjakintasunak eraginak? Batek daki. Agian, bietatik pixka bat.

*Zeba* erabiltzen da *zergatik* erabili ordez.

- *Batua zeba dek bestie baño hobia*
- *Ordun, iruitze ziten errexo emango'itula, etzakiñat zeba (...)*

*Baita* ere oker erabiltzen da.

- *Hori nei pasa zat baita erderaz*
- *Bai, baño baita re geo hizkuntzie (...)*
- *Bai, baño erderaz geyo aitze'k baita*
- *Beste eragin bat sortze'ñabe baitare hoyek.*
- *Ni(k) uste't zarrouek, eztait, geo baita i(g)ual berrogei urteti(k) gorakuek eta, hola, eztait, geyo bezela, eztait, hola, geyo bezela ibili baño hobeto ibiltze'bela.*

Hitanoa ere bada gazte hauetako gehienek hizkeraren ezaugarria. Neska gazteek izan ezik, hitanoa erabiltzen dute guztiek lagunartean hitz egiteko; zutanorik ez.

- *Hika, launekin da*
- *Ezten aitzen. Hik ite'yon, nik iñ izen tzonat neska gaxtiei, ta eztiñabe erantzuten, e. Zuka ite'ñabe.*
- *Le(he)n, esate'iapa, nere gurasuek e, hayek neskakin, da attek e neskakin eta zea, hika askoz geyo ite'ye gaur egun gure inguruko neskak alkarrekin baño.*

Dena dela, Maitane Izagirreraren lanean jaso bezala, batzuetan, erabili behar ez denean ere alokutiboa erabiltzen dute. Baina batzuek (eta ez guztiek), eta batzuetan (ez beti). Kasu honetan, gainera, mutil-taldeek elkarrizketatzaileari zuka egiten diote, eta horrek esaldi batzuetan zuka eta hika nahastea ekarri du.

- *Baño nik hola esango nun gaztik geyo hitzeite'iala.*
- *Fazilidadi zakeabela, o...*
- *Ondo etzekiatela, asko bai.*
- *Baño azpeitiar korrektu igual zer deken etzakiau*
- *Nik uste niñenan leno galduta zeonala, guk rekuperau bezela in diñaula, ta pentsatze niñenan segiu ingo ziñenala. Ez?*

Eta, azken ezaugarri gisa, aipatu nahi nuke gazte hauek zenbait kontsonante ez dituztela ahoskatzen beren hizkeran. Euskalkietan ohikoa izaten da hori, baita Azpeitian ere (*a(d)arra jo*); baina, kasu honetan, badirudi transgresiorako baliabidea dela herriko hizkera estandarrean ahoskatzen diren kontsonanteak ez ahoskatzea. Gehienbat *k* kontsonantearekin gertatzen da, baina baita gehiagorekin ere. Jakin aditzarekin da agian nabarmenena, baina gehiago ere badira. Badirudi idatzian ez dela hainbeste erabiltzen (ulermenaren mesedetan izan ote liteke?), baina adibideren bat edo beste bada.

- *Segun. Hatxe(k)in a(k)ordaute(k)un hatxe(k)in*
- *Nei etza(t) gustatzen hikaz hitzeitie*
- *Nik etza(k)iñat txiste bat erderaz kontatzen.*
- *Iruitze zik, iruitu o etze(k)iat, berez ezte(k) hala, baño pixkat zea dala...*
- *Bai, ni(k) behintzet*
- *Baño es que hamen ezta to(k)atzen asko erderaz hitzeitie*
- *Eskerrik asko!! aer noiz eite deun!*

Uztarria.com webgunean ere bada halakorik:

- *Nik azkena eskutitze Afrikako txoko batea bialdu nian. Hartzailiek, bueltakuen eskerriasko emantzitean.*

Eta, azkoitiar neska batzuen fotolog batean, honako hau:

- *eeee t miren etortzeo goue daukeu eee*

Azkenik, gaztelaniaren eta gainerako hizkuntzen eragina alde batera utzi, eta euskalkian jarri nahi nuke arreta. Gazte denek herriko hizkeran hitz egiten dute, baina hizkera hori guztia berdina den edo desberdintasunik badagoen jakin nahi izan dut. Aurkitu ditut Azpeitiko hizkera estandarretik kanpoko hainbat kontu ere.

Gazteenetan:

I bokala eta beste bokal bat elkarren alboan daudenean tartean sartu ohi den y soinua ez sartzea:

- *Zumaie* (eta ez Zumaye)
- *Errenteie* (eta ez Errenteye)
- *Beaiei, beaien, beaiek* (eta ez beayei, beayen, beayek)
- *Hoiek* (eta ez hoyek)
- *Garaie* (eta ez garaye)
- *Jaio* (eta ez jayo)
- *Anaiekin* (eta ez anayekin)
- *Hotseite'iobe* (eta ez hotseite'yobe)
- *Esplikatze'iobe* (eta ez esplikatze'yobe)

Herriko hizkeran ohikoa den bokal-aldaketa egin ez eta, estandarrera jotzea:

- *Ikaxi, ikasi* (eta ez ikixi)
- *Izan* (eta ez izen)

Herriko hizkerakoak ez beste hizkera batzuetako adizkiak erabiltzea:

- *Zait, etzait* (eta ez zat, etzat)
- *Ite'ie* (eta ez ite'iabe)

A itsatsia duten herrien izenak ohi bezala ez ahoskatzea:

- *Azpeitin* (eta ez Azpeitiye, Azpeitiyen)
- *Donostin* (eta ez Donostiye, Donostiye)

Herriko erabilerako hitza ez, baizik eta beste bat (euskara batukoa) erabiltzea:

- *Aita* (eta ez atte)

Hitz horietako batzuk nahasian ageri dira, alegia, *aita* dioen neska berak *atte* ere badio aurrerago, eta gauza bera *zait* eta *zat* adizkiekin ere. Hiztunen artean ez da aurkitu bereizgarririk: bi gurasoak azpeitiarrak dituztenek eta kanpotarrak dituztenek erabiltzen dituzte, nahasian. Ez dago profil jakin bat.

Zaharrenetan, herriko hizkeratik urruntzen den erabilera askoz txikiagoa da. Hauek errepikatzen dira gazteenen kasuan aipatutakoetatik:

- *Azpeitin*
- *Donostin*
- *esangoi'ituzten* (eta ez esango'ituben)
- *ite'ye* (eta ez ite'iabe)

Gazteenetan zerrendatutako gainerako hitzetako gehienak ere agertu dira zaharragoen elkarrizketan, baina guztietan Azpeitiko tradiziozko forma erabili dute: *hoyek, hayek, beayen, anaye, ikixi, galdetze'yok, garayen, zat.*

Idatzian ere urruntzen dira, batzuetan, gazteenak herriko hizkeratik:

- *Komuniyon nd ementxe. Errezilgo bidia eterno eintzar*
- *Sk O-i bialtzeiot d eztzayola allatzen esandit d orreatik...*

## 6. ONDORIOAK

Josu Goenaga eta Eider Alkortaren ikerketak erakutsi bezala, Azpeitiko gazteak (eta, zehazki, aztertutako hauek) euskaraz bizi dira. Guraso euskaldunak dituzte guztiek (Goenaga eta Alkortaren ikerketaren arabera, erabileran eta ezagutzan maila gorenean egoteko baldintzetako bat), eta ez da ahaztu behar erabilera optimoa (alegia, elkarrizketen % 100 euskaraz) neurtu zen ikastolako ikasleak edo ikasle ohiak direla guztiak. Herriko hizkeraren kalitatea ona dela uste dute, baina horrekin ez daude guztiz ziur ere, uste dute kantitatea dela Azpeitiaren indargunea. Horretan ez dute zalantzarik.

Uztarrarian batek zioen bezala:

*“Azpeitian hazi, hezi eta lan egiten duen azpeitiar bati, Azpeitian euskaraz bizi al garen ala ez galdetzen diotenean, ikasle bati azterketako lehen galdera ikusi eta bezperan errepasatutako gaia dela ohartzean islatzen zaion irrifartxo agertzen zait ezpainetan.” (Xabier Goenaga)*

Kultura-kontsumoan, euskarak ez dauka eguneroko hizkuntza gisa duena bezalako nagusitasunik, ezta urrik eman ere. Gaztelania urrun sentitzen dute gazteek eguneroko hizkuntza gisa, baina telebista euskaraz eta gaztelaniaz ikusten dute gehien-gehienek. Horrek ez die murrizten, dirudenez, euskararen erabilera, kantitateari begiratuta. Kalitateari eragiten ote dio? Ezin jakin...

Generoaren aldetik, ez da aurkitu desberdintasun handirik hitanoaz aparte. Mutil eta neska gazteenek elkarrizketan aipatu zuten neskek gaztelaniaren interferentzia gehiago dituztela, eta baliteke hala izatea, nesken elkarrizketa eta idatzizko testuetan interferentzia ugari baitaude. Dena dela, mutil gazteenekin egindako elkarrizketa guztiz naturala izan ez zenez, ez dut lortu hori baieztatzeko adinako daturik. Mutilek hizkera bortitzagoa erabiltzen zutela ere aipatzen zuen Goenaga eta Alkortaren ikerketak, baina lan honetan ez dut halakorik sumatu. Bestalde, ikerketa horretan aipatzen zen iritzi orokorra zela emakume helduek dutela joerarik handiena gaztelaniaz hitz egiteko, eta lan honetan ere iritzi hori izan da nagusi. Gai horri buruz idatzi izan dute zenbait egilek (Kike Amonarrizen *Euskararen erabilpenaren feminizazioa* artikulua, esate baterako). Aurreko belaunaldietan, hainbat arrazoi sozial zirela medio, emakumeek gizonezkoek baino gutxiago egiten zuten euskaraz, oro har. Lagunartean gaztelaniaz egiteko ohitura izaten zuten askok, herri eta familia euskaldunetakoak izan arren. Itxura guztien arabera, hala ere, joera hori irauli egin da, eta gaur egun dagoeneko emakumezkoek gehiago erabiltzen dute euskara gizonezkoek baino.

Hitanoari dagokionez, neurri batean baieztatu egin dira Maitane Izagirreraren ondorioak. Hark ondorioztatu bezala, toka egitea ohikoa da, eta bizi-bizi dago, ez ordea noka. Dena dela, neurri batean baieztatu dela esan dut, gure lagineko neska-talde zaharrenean noka egitea delako modurik ohikoena lagunarterako, eta mutil zaharrenetako batzuek ere badutelako noka egiteko ohitura. Elkarrizketetan aipatu dutenez, ez dira adin-inguru horretan erabiltzen duten bakarrak, neska gazte gehiagok ere egiten baitute noka; badakite, ordea (batzuek ez zuten irudipen hori, eta elkarrizketan bertan jakin dute), ez dela hori herriko neska gazteen joera nagusia. Edonola ere, ez diezaiozun alde txarrari bakarrik begiratu: errealitate bat da Euskal Herri osoan noketak duen egoera eskasa. Toka egiten jarraitzen da, baina noka ez da ia inon erabiltzen gazteen artean. Azpeitian, berriz, noketa darabilten neska-taldeak gero eta gutxiago izan arren eta joera beheranzkoa izan

arren, badaude oraindik egiten dutenak ere, eta ez dakit beste zenbat herritan egongo diren beren artean normalean noka aritzen diren neska gazteen lagun-taldeak. Askotan ez, behintzat.

Gazte-hizkeraren joera nagusia adierazkortasuna eta transgresioa bilatzea da, eta, horretarako, lanaren hasieran aipatu dugu euskarazko gazte-hizkerak nahastea erabiltzen duela (euskara eta gaztelania, euskalkiak eta batua...). Horiek guztiak aurkitu ditut gazte hauetan. Adierazkortasuna bilatzeko, askotan eta guzti-guztiek jotzen dute gaztelaniara, bai kode-alternantziaren bidez, bai gaztelaniazko gazte-hizkerako lexikoa mailegatuz... Sarri eta asko jotzen dute gaztelaniara; euskarak ematen ez dien horren bila, izango da. Dena dela, askotan bai, baina ez dute erabat jotzen gaztelaniara; euskararen iturriko adierazkortasuna ere badarabilte, herrian edo inguruetan sortutako gazte-lexikoa, ahoskeraren eta halakoen bitartez, eta ez da seinale txarra. Izan ere, sortzekotan ere honelako gazteek sortuko dute euskal gazte-hizkera: herri euskalduna oso, erabilera-maila handia duena, guraso euskaldunak, lagunarte euskalduna, ikasketak euskaraz egiteko aukera... asko dute beren alde. Nork sortuko du, bada, bestela?

Transgresiorako, gurasoengandik bereizteko, balio die euskarak. Gaztelaniazko lexikoa erabiltzen dute batzuetan horretarako, eta, besteetan, gauza berriak asmatzen dituzte. Ahoskeraren aldetik, esate baterako, aipagarria iruditzen zait zenbait kontsonante (k kontsonantea gehienbat) ez ahoskatzeko ohitura; horrela hitz egiten jarraituko ote dute hemendik hogeitaz urtera?

Euskalkiari dagokionez, antzekoa da guztien hizkera, baina, neurri batean, baieztatu da lana hasterako neukan hipotesia: gazteen artean, badirudi fonetika aldetik batura hurbiltzeko joera dagoela, i eta beste bokal baten ondoren sartzen den y soinua ez baitute erabiltzen batzuetan. Aditzetan ere nabari da, batzuetan, aldaketaren bat, baina ez da hain nabarmena ere. Aldaketa fonetikoa deigarria da, ordea, eta zaharrenean artean ez da halakorik. Euskara batura hurbiltzen ari ote da, bada, Azpeitiko hizkera? Men egiten ari ote zaio betidanik dotoretasun-eredu izan den Beterriko euskarari? Denborak esango du. Oraingoan, aldaketa-zantzuren bat badago, baina ez halako baieztapenak egiteko adina. Hemendik urte batzuetara inork aztertu nahiko balu, hemen du lehenengo harria.

Esango nuke euskara salbu legokeela Euskal Herri osoko gazte guztien egoera soziolinguistikoa hemen aipatzen dugun hau balitz. Azpeitia herri koskorra da, ez txiki-txikia ere, baina hala ere hitanoa bizi-bizi dago. Familia, eskola, lagunak, aisialdia, lana... alderdi garrantzitsuenetatik begiratuta, euskarazko ingurune batean bizi dira, eta gaztelaniaren beharrik ez dute ia eguneroko bizitzan. Ez, berez. Baina beren elkarrizketa, mezu idatzi eta abarretan gaztelania ageri da nonahi. Ez dute gaztelaniaz egiten, baina gaztelania barra-barra darabilte: batean egitura bat, bestean maldizio bat, bestean mailegu soil bat... Horrek zer esan nahi du, euskarak izan dezakeen kaleko gazte-hizkera "onenetako" bat dela, eta berak ere ezin diola ihes egin gaztelania erraldoiaren indarrari? Hala dirudi.

Nolakoa izango ote da etorkizuneko gazte-hizkera? Batek daki. Oraingoan, gauza bat ikusten da argi: era batera edo bestera, hitz politagoak edo zatarragoak erabiliz, eta gaztelaniaren eraginpean bada ere, euskaraz egiten jarraituko dute Azpeitiko gazteek.



## 7. BIBLIOGRAFIA

-ALKORTA, E. GOENAGA, J. (2001): Azpeitiko gazteen jarrera euskararen inguruan. Argitaratu gabea.

-AMONARRIZ, K. (1995): Euskararen erabilpenaren feminizazioa. BAT 15, 89-96.  
<http://www.soziolinguistika.org/modules/Bat/artikuloakPDF/15/Amonarriz.pdf>

-AMONARRIZ, K. (2008): Gazte-hizkerak – Hizkera gazteak. BAT 68, 167-183.  
<http://www.soziolinguistika.org/files/11%20k%20Amonarriz.pdf>

-AMONARRIZ, K. Gazteen euskara erabilera: hizkuntza kalitatea. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista. Donostia. Euskal Herriko Unibertsitatea.

-CRYSTAL, D. [http://www.euskara.euskadi.net/r59-bpeduki/eu/contenidos/informacion/artik25\\_1\\_crystal\\_08\\_06/eu\\_crystal/adjuntos/David-Crystal.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/r59-bpeduki/eu/contenidos/informacion/artik25_1_crystal_08_06/eu_crystal/adjuntos/David-Crystal.pdf)

-ETXABE, K. (2010). Kode alternantzia lagunarteko gazte-hizkeran. HIZNET, Hizkuntza Plangintzako Unibertsitateko Espezialista.

[http://hiznet.asmoz.org/images/stories/ikerketa\\_lanak/2010/Kode\\_alternantzia\\_lagunarteko\\_gazte\\_hizkeran.pdf](http://hiznet.asmoz.org/images/stories/ikerketa_lanak/2010/Kode_alternantzia_lagunarteko_gazte_hizkeran.pdf)

-GARZIA, J. (2005): Kalko okerrak. Gasteiz. Eusko Jaurlaritza.

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-euskcont/eu/contenidos/informacion/dih/eu\\_5490/adjuntos/estilo\\_liburua/KALKOAK/AURK\\_IBID.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-euskcont/eu/contenidos/informacion/dih/eu_5490/adjuntos/estilo_liburua/KALKOAK/AURK_IBID.pdf)

-IZAGIRRE, M. (2011). Hitanoaren erabilera Azpeitian. HIZNET, Hizkuntza Plangintzako Unibertsitateko Espezialista.

-MARTINEZ, Z., BERRIO-OTXOA, K., ALTUNA, O., JAUSORO, N.: 2.1. ikerketa soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista. Donostia. Euskal Herriko Unibertsitatea.

-MUÑO, I. Zergaitik eta zertarako erabiltzen ditugu euskara eta gaztelera solasaldi berean?. BAT 42. zk, 53-63.

<http://www.soziolinguistika.org/eu/node/915>

-ZUAZO, K. (2000): Euskararen sendabelarrak. Alberdania. Irun.

-ZUAZO, K. (2005): Euskara batua, ezina ekinez egina. Elkar. Donostia.

-ZUAZO, K. (2008): Euskalkiak, euskararen dialektoak. Elkar. Donostia.

-[www.ahotsak.com](http://www.ahotsak.com)

-[www.uztarria.com](http://www.uztarria.com)

-[www.erabili.com](http://www.erabili.com)

## 8. ERANSKINAK

### 1. eranskina, inkesta-eredua

Izen-abizenak:  
 Adina: \_\_\_\_\_ | Jaioterria:  
 (Jaioterria Azpeitia ez bada,) zenbat urte daramatzazu Azpeitian bizitzen?

Euskaraz hitz egin (gaitasuna)

	Oso Ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
Ama					
Aita					
Zuk					

Euskara erabili

	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Erdia inguru	Euskaraz oso gutxi	(la) bat ere ez
Etxean					
Bizimoduan					

- Gurasoak nongoak dituzu?
  - Ama:
  - Aita:

#### **Azpeitia eta euskara Gipuzkoan eta EHN**

- Beste herri batzuekin alderatuta, zer iruditzen zaizu Azpeitiko euskara (kalitate aldetik, kantitate aldetik...)?
- Eta Azpeitiko gazteen euskara?

#### **Euskara Azpeitian**

- Azpeitian bertan, denek berdin hitz egiten dutela uste duzu?
- Zaharrek eta gazteek berdin?
- Eskola denetan berdin?
- Auzo guztietan berdin?

- Eta kantitate aldetik, ba al dago desberdintasunik zahar eta gazteen artean, eskolen artean, auzoen artean?

### **Euskalkia eta kalitatea**

- Zer duzu nahiago, batua ala euskalkia? (lanerako, hitz egiteko, idazteko, SMSetarako, sare sozialetarako....) Eta zein erabiltzen duzu gehiena?
- Azpeitian ondo hitz egiten dugu euskaraz? Beste leku batzuetan baino hobeto edo okerrago?

### **Hitanoa**

- Hitanoa (hika) erabiltzen duzu? Zer iruditzen zaizu?
- Badirudi Azpeitian hitanoa galtzear dagoela nesken artean. Ados zaude? Zer iruditzen zaizu?

### **Kultura-kontsumoa**

- Musika zer hizkuntzatan entzuten duzu?
- Telebista zer hizkuntzatan ikusten duzu?

### **Gaztelaniaren eragina**

- Gaztelaniaz egiten duzu batere? Erabiltzen duzu?
- Uste duzu gaztelaniak eragin handia duela Azpeitian euskaraz ari garenean? Baietz uste baduzu, zertan nabaritzen duzu hori?
- Harremanak egiteko, nola sentitzen zara erosoan, euskaraz ala gaztelaniaz? Erdaldun zein euskaldunekin berdina egiten dituzu harremanak?

## 2. eranskina, transkribaketak

### 1. TALDEA, MUTIL GAZTEENAK

(Zer iruditzen zaizue, Azpeitian zer moduz egiten dugu euskaraz?)

-Dexente ondo

-Oso ondo

(Bai?)

(Ondo, zergatik, asko egiten delako, edo ondo hitz egiten delako?)

-Asko e(g)ite deulako gehienbat

-Toki askotan baño hobeto bai baño, hobeto re hitzeite'be hemen baño

Non?

-Ezta(k)ipa. Zean da... Hernani ta alde hortan da. Goierri alde hortan da, ondo ite'be nere ustez

(Hemen baino hobeto?)

-Bai

-Hor e danetik eongoa

-Hobeto (b)aña gutxiyo i(g)ual. Jende gutxiyok

(Zer da garrantzitsuagoa, hobeto egitea edo gehiago egitea?)

-Ezta(k)i(t) pa

-Biyek

(Eta hemengoari zer ikusten diozue okerragoa, ez dela hain garbia, adibidez?)

-Bai. Erderakadak eta

(Asko erabiltzen dira?)

-Dexente

-Ezte(t) uste nik behintzet. Ezta(k)it, e, ni(k) behintzet eztet asko ibiltzen

(Ez?)

-Ez neu akordatze naizela behintzet

(Eta zuri zer iruditzen zaizu, zer erderakada erabiltzen direla?)

-Ezta(k)i(t) pa, oñ hola esate(k)o baño, batzu(k) hola kalin da aitze'ie hola.

-Jende batek ibiltze'itu

(Eta zuek ez?)

-Parida da hola(k)u(e)k. Hitz xelebrie(k)

(Baina, bestela, zer egiten duzue, dena euskaraz?)

-Bai, geyena

(Etxean?)

-Bai

(Lagunekin?)

-Bai

(Denekin?)

-Bai

(Eta zer iruditzen zaizue, erderak zuen hizkeran eragina daukala?)

-Hizkeran ez behintze(t), hitz batzuk kenduta

(Hitz batzuk bai?)

-Bai

(Adibidez?)

(isilunea)

(Ez dakizue zein diren?)

(xxxx)

(Eta euskara batuan? Egiten al duzue batere? Idatzi edo?)

-Bai, eskolan

(Eta, gero...)

-Hika, launekin da

(Denok hika egiten duzue?)

-Bai

(Eta neskek?)

-Neskak ez

-Neskai beti zuka

(Zuek neskei zuka, eta berek beren artean?)

-Zuka

(Zergatik?)

-Ezta(k)it

-Ezta(k)ibela(k)o hika neskan artin

-Batzutan jar(d)uteie

-Batzutan gexki re bai, mutilei (b)ezela (xxx)

(Eta zuek ez diezue egiten?)

-Batzuten a(d)arra jotzeko pixket hola, ezta(k)it, i(g)ual imajinau zeoze gexki ite'ula, ta hi zertan a(r)i haiz? Hola(k)o zoze esan, baño

(Normal hitz egiteko ez, ezta?)

-Ez

(Nolatan?)

-Ezta(k)it

-Ohiturie izengoa

-Eske beayek ezpaitugu ikusten igual hola hitzeiten, guri re etzaigu ertetzen beaiei hola...

(Arraroa egiten zaizue? Eta mutil bati zuka egitea?)

-Rarue

(Egiten diozue inoiz?)

-Ez

-Attei da i(g)ual batzutan

(Aitari batzutan bai eta besteetan ez?)

-Bai

-Attei nik beti

-Nik attei ite'yot batzutan zuka ta beste batzutan hika

(Eta zaharragoei, bestela?)

-Zuka

-Za(ha)rrouei zuka

(Osabei-eta...?)

-Zuka

-Beti zuka

(Zer erabiltzen duzue, Facebook, Tuenti...)

-Tuenti

(Nola idazten duzue, hitz egiten duzuen bezala?)

-Bai

-Bai, gehiena

(Eta batuan zergatik ez, adibidez?)

-Ezta(k)it.

